

# noaua

**Aingirak eta arrainak  
hilda agertu dira  
erraustegi  
azpiko errekan**

**Tren geltokia  
berritzeko urratsak  
ematen hasi dira**

**Lehen terrazak  
zabaldu dituzte**

**Agertokira noiz itzuliko zain**

# ATE IREKIEN JARDUNALDIA

Maiatzaren 23an  
eta 27an

[www.lhusurbil.eus](http://www.lhusurbil.eus)



**ez galdu aukera!!**

**ZATOZ GU EZAGUTZERA!!**

**AURTEN  
ONLINE!!!**



**FUNERARIA  
GONZALEZ**  
EHORZTETXEA

munalurra 8, USURBIL

**OCASO, SANTALUCIA...IZANEZ GERO,  
HERIOTZA GERTATZEN BADA,  
DEITU ZUZENEAN GURE BULEGORA 24H,  
(edo aseguruari gure zerbitzuak eskatu).**

MOMENTU LATZETAN DENETAZ ARDURATZEN GARA

**943 36 21 63 (24H)**

·BEILATOKI GUZTIAK: USURBIL, ERREKALDE... ·ERRAUSKETAK



[www.funerariagonzalez.es](http://www.funerariagonzalez.es)

## USURBILGO KOMERTZIOEN IREKIERA

**TUANTXO**  
**BURDINDEGIA**  
ZUBIAURRENEA 8 · 943 37 00 08

**Marije**  
Arropa denda  
ETXEBESTE 3, 943 36 11 06

**Lurda**  
mertzeria  
MAIATZEAN, GOIZEZ 10:30-13:00  
ARRATSALDEZ HITZORDUA: 688 71 92 04

## Albiste iruditan

# Hainbat herri lan martxan



Oiardo kiroldegiko sabaian eguzki plakak jartzen hasi dira. Artzabalgo parkean jokoak eta eserlekuak margotu dituzte.

**A**rtzabalen, Udaregi ikastolan, kiroldegian eta frontoian, herri lan ezberdinak abiarazi ditu Udalak.

Oiardo kiroldegian eguzki plakak jartzen hasiak dira sabaian. 28.628,29 euroko aurrekontua dute lanok Udale-

tik aditzera eman dutenez; horietatik 5.851,44 euro diruz lagundu ditu Energiaren Euskal Erakundeak. “Instalazio horri esker, Kiroldegiko energia kontsumoaren %8 eguzki-energiarekin hornituko da, lehendik jarrita zegoen instalazio termikoaz gain”, berri eman du Udalak.

Beste lan hauek ere martxan jarri ditu Udalak; “Artzabalgo parkean jokoak eta eserlekuak pintatu dituzte; frontoiko sabaian kolorezko estalkia jarri dute; Udaregi ikastolaren Agerialde eraikineko hirugarren solairuko leihoak berritu dituzte”.

## Laburrean

### Positiboen kopurua igo egin da azken egunetan

Azken egunetan hiru kasu berri gehiago eman dira. Osasun Saila egunegun COVID-19 birusari buruzko datuak eskaintzen hasi zenetik hona, 11 dira Usurbilen diagnostikatutako kasuak.

### Zumarteko matrikulazioa ekainean hasiko da

Musika Eskolatik iragarri dutenez, 2020-21 ikasturterako matrikulazio epea, ekainaren 1etik 5era izango da. “Laster jasoko duzue informazio guztia”, aurreratu dute zumarte.eus ataritik.

### Berrogeialdian daudenentzat oharra

Udalak atez ateko sistema egokitu du COVID-19a izan edo berrogeialdian dauden etxeetarako. Kasu horietan, berebiziko garrantzia du Atez Ateko bulegora deitzeak: 900 776 776.

# noaia

Kultur Elkarte

Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea. 20.170 Usurbil  
943 360 321 ||| elkarte@noaia.eus ||| www.noaia.eus  
Jendaurreko ordutegia: 10:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

**Elkarteko lehendakaria:**  
Idoia Torregarai.  
**Aldizkariko koordinatzailea:**  
Imanol Ubeda.  
**Idazkaria:** Alaitz Aizpurua.  
**Diseinua:** Erroitz S. L.

**Erredakzio kontseilua:**  
Imanol Ubeda, Aritz Lasarte.

**Publizitatea:** Beatriz Alda,  
publizitatea@noaia.eus

**Banaketa:** Inaki Irazusta,  
Iban Maritxalar.  
**Tirada:** 2.930 ale.  
**Lege-Gordailua:** SS-668-96  
**ISSN:** 1136-6818.

**Inprimategia:** Antza. Zirkuitu  
Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

**Harremanetarako:**  
erredakzioa@noaia.eus



## Gipuzkoako Foru Aldundia







Aritz Gorriti

## Hau ez da amaitu

**I**kasi eta lan, ahal duenak (lanik gabe edo ikasi ezin geratu ez bada) etxetik. Etxeak, lantoki, ikasgela, aisialdi eta zaintza lekuak. Izan etxe handi balkoidun, nahiz leiho txikidun pisuak. Bakarrik bizi, nahiz konpainia jendetsuan.

Bazkalaurreko poteoa, online azkenaldi luzean. Lagun eta senide arteko hitzorduak bezala, deiak elkar entzuteko soilik ez, ikusiz eta pantaila ukituz hurbilago sentitzeko.

2 metrok elkar banatzen gaituzte. Saltoki atarrietan begi bistakoa da. Lehen erroan lanean dabiltzan dendariak eta beste hainbat profesional. Orain arte ezkutuan aritzen ziren, baina "gure mundua" geratu den honetan, hainbatetan aipatu izan diren baina bazi-rudien ezkutuan ziren lanbide prekarizatuenera, erre-

konozimendu eskasa zutenean, orain oinarri oinarritzko beharren berme ditugu: osasun alorreko langileak, zaintza lanez arduratzen direnak...

Hainbat lan eta bizi proiektu etenda geratu dira. Batzuk aldi baterako, itzultzeko zain dira beste hainbat, egoera berriera egokitzeko baliabide eta baldintza segururik ez askok. Aurrera egin ezinda geratu direnak, laguntza premia larrian dira. Osasuna, bizitza, inoiz baino gehiago ezinbestean erdigunean, baina sistema erohau elikatzen segitzera behar-tuak oraindik. Kale izkinetan arimarik ez hilabeteotan, herri bizitza altxorra dela azaleraziz. Aire garbiagoa arnasten ari ote gara? Asteburuko isuriak kezka eragin du Zubietako errekan. Errekan gora, kea noiznahi. Probaldi fasean omen erraustegia, baina martxan. Eguerdiko

12:00ak sirena hotsak pizteko unea.

Alarma egoera anitz, premia larria hainbat etxeetan. Isilpeko istorioak orain arte, sentitu eta bizitakoa plazaratzeko behar-rean. Etxetik atera gabe, erosketak egin ezin dituenarentzat, herritar bolondres sare bat laguntzeko prest. Itzela, Usurbilgo Prebentzio Mahaiak hasiera hasieratik, salbuespeneko egoera ezin konplexuagoa den honi emandako erantzun solidarioa. Ezin interesgarriagoak, landu diren protokolo, jarraibide eta beste hainbat neurri, etorkizunerako guztiz lagungarriak izango direnak ziur.

Eguneroko "partean" bidegabeki hildakoak eta diagnostikatuen kopuruak etengabe gorantz egin ostean, joera aldatzen orain. Bakarrik, inguru hurbila bildu ezinik, isilik joan dira azken aldiaren zendu dire-

nak. Asko adinekoak; zaintza lanez badugu zer hausnartua.

Egoera latzak gozaten laguntzeko eskaintza zabala sare sozialetan murgilduak direnentzat. Sare sozialak balkoi arteko komunikazio zubia. Kirola egin, mediatu, edota kultur hitzorduez gozatzeko eskaintza zabala.

Txalotzekoa, aste guztio-tan Artixten Taldeak herri bizitzari, etxetik eusteko egini-ko ahalegin itzela. Etxeak, balkoi eta leihoak izan ditugu eta, bizitza sozialaren gune bakarrak. Iluntzeko 20:00etan, gure osasuna eta bizitza zaintzen ari diren profesional guztiak txalotzeko unea. Txalo adina beharrezko baliabide jaso ditzatela ahal bezain laster.

Zenbat emozio, bizipen eta ikasgai hilabeteotan. Eta hau ez da amaitu.

Imanol Ubeda

Aritz Gorriti

Luis Aranalde

Maddi Aburruza

### Ika-mika

## 10 galdera Olano eta Asensiori zuzenduta, erraustegiaren aurkako mugimenduaren partez

1) Erraustegia 2019ko udazkenean martxan jartzeko asmoa zenuten Diputazioak eta GHK-k. Transformadore batekin arazoak zirela eta, atzeratu egin zela esan zenuten. Azken hilabeteetan frogak egiten ari direla esaten duzue, baina hauek ez dira amaitzen. Jakin al daiteke atzerapenaren benetako arrazoiak? Egia al da labeetan ezin dutela beharrezko tenperatura lortzeko helburuarekin gaikako bilketako paper eta plastikoak erretzen ari zaretela?

2) Tenperatura ez lortzearen hipotesia egia balitz, denek esaten dute tenperatura baxuetan lan eginez gero, dioxinen kantitatea handitu egiten dela. Frogak egi-

ten ari diren tarte honetan, zenbat ordutan neurtu dira dioxinak eta zer emaitza eman dute neurketek?

3) Zenbat hondakin tona erre dituzue dagoeneko, "proba" fasean? Egunean 200 tona hondakin?

4) Zenbat zepa eta errauts tona sortu dira "proba" fasean?

5) Zepa eta errautsa hauekin zer egin duzue? Azterketak egin dituzue? Egin badituzue, zein da hauen arrisku maila? Zabortegei batera bideratu dituzue ala bertan daude?

6) Probetako epe honetan, zer kutsadura maila izaten ari da atmosferara isuria? Zenbat dioxina, zenbat furanoak, zenbat metal astun, zenbat CO2 isuri

duzue?

7) Biometanizazio planta martxan daukazue? Hor lortutako gasarekin zer egiten da? (Atmosfera isuri, erre eta energia ez aprobetxatu erre eta energia elektrikoa lortu). Hortik atera al da materia organikorik? Zer egin da honekin?

8) Noiz utziko diozue herritar-erakundeak ergelak balira bezala tratatzeari? Zertara dator atmosfera gehiago kutsatzea klima aldaketaren aurkako estrategia bezala saltzea? Lobbyren batek proposatu dizue ideia?

9) Geroz eta gehiago dira kutsadura eta koronabirusaren eragin hilgarria lotzen dituzten ikerketak. Azkena Harvard unibertsitatean egina. AEBetan 3.080

gune ikertu ostean, aurkitu dute lotura bat PM 2,5 (2,5 mikrako diametroa baino txikiagoarekin) maila altuagoak diren lekuetan koronabirusak jende gehiago hiltzen duela. Metro kubikoko kontzentrazioan mikrogramo bakarra igotzeak, heriotz tasa %15 igo duela frogatu dute. Kontzientzia lasai daukazue makina hilgarri hau piztera zoazten agintariok?

10) Noiz erakutsiko duzue zaborraren multinazionalekin gu denon izenean 35 urtetarako sinatu duzuen kontratua? Zer dago hor hain larria ez erakutsi nahi izateko?

**Erraustegiaren Aurkako Mugimendua.**

# “Saio asko neuzkan lotuta ekaina bitartean, eta denak bertan behera geratu dira”

**Y**olanda Arrietaren hitzak dira horiek, baina kulturaren sektorean aritzen den edonorenak ere izan daitezke. Plazaz plaza dabilzan hainbat lagun iritziak batu ditugu. Emanaldi asko galdu dituzte baina hori ez da okerrena. Etorkizun hurbila ez dute batere argi ikusten.

**NOAUA! Haur eta gaztetxoentzako saio ugari egiten dituzurtean zehar. Emanaldi asko galdu al dituzurtean?**

**Yolanda Arrieta.** Idazteaz gain, aurrez aurreko saioak ditut gustuko. Horiek dira nire “marka”, nolabait esatearren. Saio asko egin izan ditut orain arte, bai umeekin eta baita irakasleekin ere, formazio-saioetan. Beti ere HGL hizpide dela. Saio asko neuzkan lotuta ekaina bitartean ere, eta denak bertan behera geratu dira. Hogeita hamar saio inguru, saio solteak eta ikastaro edo formazio bidezkoak. Horietako asko eta asko solte geratu dira, berreskuratzeko ideia zehatzik gabe. Beste batzuk atzeratu egin ditugu udazkenara. Galtzagorri Elkarteak eta EHUK Eusko Jaurilaritzaren laguntzarekin (hainbeste kostata) martxan jarritako HGL Eskolan ikastaroan ere saio bata aurrez aurre eman nuen martxoaren 12an (haur poesia), eskolak itxi bezperan, eta hurrengo gutxia goitik behera berrantolatu behar izan nuen modu ez-presentzian emateko, batez ere, saioa ez galtzarren eta ikastaroarekin jarraitzeko. Ez dut nik halakorik inoiz egin baina, alabaren laguntzaz, bideoak grabatu eta gida moduko apunteak antolatu nituen eta, beno, nahiko ondo aterazen, surrealista samarra izan arren, izan ere gaia ahozko-tasunarekin loturik baitzegoen (ahozko kontaketa).



“Buelaren zain geratuko gara”, adierazi digu Yolanda Arrietak. “Motorrak berotzen, kontuak asmatzen eta ahotsa zaintzen”.

Argazkia: Altzaga ikastola, Leioa.

## YOLANDA ARRIETA

**“Hogeita hamar umeren begirada desafiatazaila botatzen dut faltan, algara orokorra, esaldi errepikatuak, keinuak, izerdia...”**

**Zuzeneko eta jendaurreko emanaldiei dagokionez, badi-rudi luze joko duela geldial-**

**diak. Ipuin kontalarien artean eta orohar ahozko-tasunaren arloan, birusa kalte handia egiten ari da ezta?**

Pantailari kontrapuntu egin behar geniola esaten nuen birusa baino lehen, ahotsa berreskuratu behar genuela, eta ahotsa gorputza dela; hots, begiak, eskuak eta aurrez sortzen dugun emozio-energia partekatua. Orain pantaila bidez

komunikatzen gara eta laster maskarak jantzi beharko ditugu niki eta prakekin batera. Ulertzen dut, osasuna zaindu behar dugu, geure onerako da. Ahozko kontaketa asko ikusten ari naiz on-line. Nik neuk ere jarri ditut pare bat bideo, eta une batean ondo etor daiteke, besterik ez dagoenean, edota hura ikusi eta beste bat horretan hasteko bulkada gisa. Ez diot ezer kentzen, bizi dugun unea kontuan hartuta, baina nik hogeita hamar umeren begirada desafiatazaila botatzen dut faltan, algara orokorra, esaldi errepikatuak, lelo orokorrak, keinuak, izerdia. Ez dakit zer gertatuko den hemendik aurrera, unean-unean joango gara bidea egiten. Bitartean, etxeetan ari dira kontu-kontari eta kantari, inoiz baino gehiago, eta hori ere ederra da. Buelaren zain geratuko gara, bada, motorrak berotzen, kontuak asmatzen eta ahotsa zaintzen. Buelaren zain.

## Ixabel Agirresarobe: “Ez nago lasai”

**NOAUA! Haur eta gaztetxoentzako saio ugari egiten dituzurtean zehar. Bakarka edota Mattin marrazkilariarekin batera. Konfinamendua ezarri zenetik hona emanaldi asko galdu al dituzurtean?**

**Ixabel Agirresarobe.** Bakarka, Mattinekin eta Jaione Albenizekin “Dantzipuinak” saioa ere egiten dut. Batzuk atzeratzeotan geratu gara baina ez nago lasai. Udazkenara pasa ditut batzuk eta beste batzuk datorren urtean egingo ditudala esan didate. Horrekin konformatu behar gainera.

**Etorkizun hurbila nola ikusten duzue?**

Zuzeneko emanaldiak eta



“Udazkenara pasa ditut emanaldi batzuk”.

leku itxietan egiteko aukera auskalo noiz izango dugun. Orain irriti eta pantaila bidez eskaintzen ditugu gure saioak. Hauek ere doan. Ea egoera honek pentsarazten digun kulturaren presentzia zenba-

terainokoa den gure bizitzan. Esperientzia berriak frogatzen ari gara eta irratiz kontaketa egitea interesgarria egin zait. Ez legoke gaizki horretan jarraitzea. Ahozko-tasunarentzat irratia leku egokia da.

## Jon Imanol Etxabe: “Musika klasikoan, gauzek denbora asko beharko dute bere horretara itzultzeko”

**D**onostiako Orfeoiaekin batera bira bat egiteko zen Europan barrena. Bost kontzertu eskaini behar zituzten Alemanian, Herbehereetan eta Luxenburgon, baina ez da posible izan. Udan *Rigoletto* operan hartu behar du parte eta Musika Hamabostaldiko hitzordu hau ere kolokan dago. Bistakoa denez, osasun alarmak bete-betean eragin du Jon Imanol Etxaberen jardura artistikoan.

**NOAUA! Emanaldi asko galdu al dituzu?**

**Jon Imanol Etxabe.** Dezente, egia esan. Pena handiena Donostiako Orfeoiaekin Alemania, Herbehereak eta Luxenburgon zehar programatua zegoen 5 kontzertuko bira bat bertan behera geratu izanak eman dit eta kolokan dago Musika Hamabostaldian parte hartuko dudana *Rigoletto* ope-



“Musikeneko klase guztiak online eskaintzen dituzte orain”. Argazkia klase horietako batean egina dago.

**JON IMANOL ETXABE**  
**“Donostiako Orfeoiaekin Alemanian, Herbehereetan eta Luxenburgon aritzekoa nintzen”**

ra. Zer esanik ez Orfeoiaekin, eta nagoen beste 3 abesbatze-

kin, emanaldiak galdu ditudala (nazioarteko lehiaketa bat, besteen artean) eta, noski, bakarlarari bezala programatuta izan nitzakeen elkarlan guztiak ere. Erabateko geldialdia pare bat hilabetez, gutxienez.

**Badirudi luze joko duela gel-**

**dialdiak. Zure jarduera artistikoan ere, birusak kalte handia egin du ezta?**

Musika klasikoari dagokionez, gauzek denbora asko beharko dute bere horretara itzultzeko. Talde handiei dagokienez (orkestra zein abesbatzak), jada prestatuta zeuden kontzertuak gauzatzeko denbora dezente itxaron beharko da, jende multzo handiak biltzea arrisku iturri garbia izango delako denbora batez. Okerrena gero etorriko da, ze programa berriak entseatzeko talde guztia biltzea ezinbestekoa da (ehunka pertsonetaz hitz egin dezakegu kasu batzuetan); jendetza handien bilkura baimena ematen dutenean kontzertuak eskaini ahal izango ditugu, eta orduan hasiko gara entseatzeko gauza berriak. Ganbera taldeek zein bakarlariek hartu beharko dugu lekukoa gainontzeko normaltzen den bitartean.

## “Kulturak arima elikatzen du”

**NOAUA! Mirari Martiarenarekin batera bira betean zeunden. Zenbat saio galdu dituzue?**

**Idoia Torregerai.** 7 saio bertan behera geratu dira martxo eta apirila artean. Martxoaren 12an, konfinamenduaren aurreko egunean azken saioa egin genuen.

**Aurrera begira, nola daude gauzak?**

Gure nahia oholtzara ahalik eta azkarren bueltatzea da, hori egitea gustatzen zaigulako. Une honetan ez dakigu bertan behera geratu direnak aurrerago egiteko aukerarik izango dugun edo ez, eta alde horretatik gainera handia da, bai. Koronabiru-



Bakean dagoenari bakean utzi ikuskizunarekin “7 saio bertan behera geratu dira”. Argazkia: Ion Markel Saez de Urabain.

sak kulturaren sortutako kalteak ere lehenetsunez kudeatu beharko lituzteke arduradunek, eta are gehiago euskarazko

kultur jardueraren kasuan. Izan ere, janariak gorputza bezala, kulturak arima elikatzen baitu.

**Joseba Tapia: “Hau aspalditik datorren gainbehera da”**

**NOAUA! Konfinamendua ezarri zenetik hona emanaldi asko galdu al dituzu?**

**Joseba Tapia.** Ez dago emanaldientzako aukerarik eta gainera ez dakigu noiz arte. Hala ere, kontzertuena da gure lanaren parte bat. Bestea, sortzea eta tresna lantzea denez ez gaude geldi. Lanean dihardugu sator zuloan...

**Etorkizun hurbila nola ikusten duzu?**

Garai egokia orain artekoa aldatzen hasteko. Hau aspalditik datorren gainbehera da. Ez badugu guk aldatzen, berak aldatuko gaitu gu.

## Haritz Harreguy soinu teknikaria: “Denek beltz ikusten dute egoera”

Zuzeneko teknikari bezala, emanaldi asko galdu al dituzu? Hasiera batean, atzeratu egingo dira. Baina jende ezberdinarekin ari naiz hizketan, kontzertuetako promotoreekin zein managerrekin, eta denek beltz ikusten dute asuntua. Zuzeneko dagokionez, urte hau galdu egingo dela seguruenik. Berrasmatzeko ahaleginean, batzuk hasi dira buruari bueltak ematen, sala hutsetan jo eta kontzertu horiek streaming bidez eskaini... Jendea ari da bururari bueltak ematen.

Estudioan, lana topera daukat baina oraintxe bertan Kataluniako beste teknikari batzuekin hizketan ari naiz, eurek ere lanean hasi nahi dutelako. Segurtasun neurri guztiak betez lanean hasi gitezke. Baina kontua da taldeek lokaletan dituztela instrumentuak. Eta joan den hilabete t'erdian ez dute entseatzeko aukerarik izan.

### Etorkizun hurbila nola ikusten duzu?

Asuntua oso arraro dago. Ziurtasunik eza, hori da okerrena. Ez jakitea “halako egunetan abiatuko gara”.

## Ruben Caballero gitarrajolea: “Emanaldi denak erori dira”

Eñaut Elorriarekin edota Don Inorrez taldearekin aritzen zara zuzenean. Udaberri juda partean jaialdi asko egiten dira. Zuzeneko musikari bezala, emanaldi asko galdu al dituzu? Bai, emanaldi denak erori dira. Neuzkan zuzeneko guztiak bertan behera utzi dituzte. Bada salbuespen bat. Apirilaren 24an Bilboko BBK aretoan aritu nintzen Eñaut Elorriarekin. Streaming bidezko kontzertu bat izan zen. Internetez bakarrik ikus ahal izan zen. Oso baldintza berezietan egin



Haritz Harreguy.



Manex Torrealдай.

zen: gehienez ere bi pertsona oholtza gainean (bera eta Eñaut aritu ziren). Guanteekin eta maskarilekin, segurtasun neurri guztiak betez. Bakoitza bere autoan aretoraino. Gai nontzeko guztia, bertan behera. Ea ez diren gehiago suspenditzen baina oraingoz ez dakigu zer gertatuko den.

### Ez dirudi egoera berehala aldatuko denik, ezta?

Egin zezakeen minik handiena egin du, baina ez gurean bakarrik. Aisialdiari lotutako beste jarduerak ere berdin-berdin daude. Jendaurrekoari lotutako guztia kaltetua izan da. Ea zer nolako neurriak hartzen dituzten. Baina kontzertuetan aritzen garenak oso egoera zaila dugu aurretik. Bete-betean harrapatu gaitu.

## Manex Torrealдай trikitilaria: “Okerrena ezjakintasuna da”

Ttipikako sortzailea zara, Laiotzeko musikari... Emanaldi asko galdu al dituzu?

Orain arte apirila, maiatza,



Ruben Caballero.



Ixak Arruti.

ekaina Ttipikaren momentu fuertea izaten zen. Aurten lau kontzertu lotuak genituen, hilabete horietan, oraingoz bi erori dira baina besteak bide beretik doaz seguruenik. Laiotzekin berriz oraintxe hasten gara denboraldiarekin, hilabete goaz entseatu ezinik eta lehen kontzertuak erori dira jada. Ez du etorkizun argirik honek, itxarotea besterik ez zaigu geratzen zer etorriko den ikusteko eta hori da okerrena agian, ezjakintasuna.

### Etorkizun hurbila nola ikusten duzu?

Kultura eta gizarte osoa kolpatu du gogor. Nik nire bizi-modua trikitixa eta pandero irakasle bezala ateratzen dut aurrera urtean zehar, baina udako bi hilabete horietan musikatik bizi izan naiz. Aurten ikusiko da baina alternatibak pentsatzen jarria nago badaezpada.

Hala ere ez nago kezkatuko. Kultur arloko eta kanpoko nire inguruan ditudan lagun batzuen errealitatea gogorra da eta.

## Ixak Arruti gitarrajolea: “Udan 40 bat kontzertu izaten ditugu normalean”

Natali eta La Regaderarekin aritzen zara zuzenean, bertso musikatuetan hartzen duzu parte, Laket erromeri taldearekin ere ikusi izan zaitugu... Udaberri eta uda partean aritzen zarete bereziki. Emanaldi asko galdu al dituzu?

Azken urte honetan La Regadera eta Natalirekin nabil bereziki. Aurten La Regaderakin bakarrik jada 20 kontzertutik gora utzi ditugu bertan behera. Herbehereetan bira txiki bat egitekotan ginen gainera, eta hura ere suspenditu behar izan dugu.

Udan zehar 40 bat kontzertu izaten ditugu normalean eta aurten iruditzen zait ez dugula batere joko. Hori La Regaderarekin, gainontzeko proiektuak kontuan izanda, ufa! Izugarri kontzertu pila galduko ditut aurten.

### Kultur arloko profesionalen egoera zaila baten, are gehiago okertu da orain.

Egia da birusak izugarriko kaltea egin duela eta egingo duela. Hala ere ez pentsa birusaren aurretik hain ondo ginenik ere, eh? Birusak Euskal Herriko kulturaren egoera prekario eta negargarria gehiago azaleratzen lagundu duela esango nuke. Zorionez edo zoritxarrez, gutako asko ez gara bizi zuzenekoak eskaintzetik, herri honetan kulturari ematen zaizkion baliabide ezak hori ezinezkoa egiten duelako.

Egia da zuzenekoak jotzetik diru pixka bat ateratzen dela, baina ez bizitzeko adina inondik inora, zenbait talde pribilegiatu kenduta noski.

Hori musikariak, baina jende pila bat bizi da zuzenekoetan lan egitetik. Teknikariak, managerrak, musika agentziak... Kaltea izugarria izango da.



# Aingirak eta arrainak hilda agertu dira erraustegi azpiko errekan

**I**txura ezin kezkarriagoa agertu zuen maiatzaren 9an, Zubietako erraustegi azpiko errekek. Urak zekarrena heriotzaren irudi argia zen; hainbat arrain eta aingira hilda agertu baitziren.

Bizilagun batek azaldu zion NOAA!ri joan den larunbatean ikustea egokitu zitzaiona. Inguru horretan bat egiten dute Arkaitz eta Lizardi izeneko errekek. Bi erreka hauetako urak Oriara doaz gero. Arkaitz erreka erraustegi ondotik igarotzen da.

Ikusitako triskantza azaldu zuen. Erraustegitik ehunka metro gutxira, lehen gainbegiratuan, “15 metrotan, 20 arrain hilda, baita 30 zentimetroko aingira bat ere”. Gehiago dira ordea, hildako arrainak. “Apar pixka bat izaten da erreketan, batzuetan naturala izaten da. Baina gaur besteetan baino apar gehiago zegoen”, azaldu ziguten bizilagunek.

Asteburuan zehar, Usurbilgo udal ordezkariak, udaltzainak, Ertzaintza, URA agentziakoak... hurbildu ziren. Laginak ere hartu ziren, gertaturikoa ikertzeko.

## Argibide eske

Larunbatean Zubietako Arkaitz errekan agerturiko arrain eta aingiren heriotza argitzeko ahaleginetan ari dira jada



Hainbat arrain eta aingira hilda agertu ziren aurreko larunbatean, Zubietako Arkaitz eta Lizardi errekek bat egiten duten eremuan.

## BIZILAGUN BAT

**“Apar pixka bat izaten da erreketan. Baina larunbatean besteetan baino apar gehiago zegoen”**

Zubietako Herri Batzarra eta Usurbilgo Udala. Zubietako Herri Batzarrak sare sozialen bidez jakinarazi zuenez, “gertakizun hau argitzeko harremanetan jarri da Donostiako eta Usurbilgo udalekin. Oso gertutik jarraituko dugu afera hau eta zerbait argitu bezain pronto jakinaraziko dizuegu”.

Usurbilgo alkate Agurtzane Solaberrietak igandean berri eman zuenez bestalde, “Zubietako bizilagunek egindako salaketari jarraiki, Ingurumen zinegotzia eta biok ingurura bertaratu gara. Hauxe da orain-

txe ikusi dugun panorama: aingira eta arrain txiki batzuk hilda eta aparra”.

Gertatu dena argitzea eskatzekoa zen Udala. “Jakín bada-kigu atzo bai URAK bai basozainak laginak hartu zituztela eta eurekin harremanetan gaudela. Usurbil aldeko erreketan, ur lagina eta topatutako arrain hilak hartu ditugu, kutsadura argitzeko asmoz”. Horrekin batera, Donostiako Udalaría eta GHKri isuria argitzea eskatzekotan zen Usurbilgo Udala.

## Erraustegiak zerikusirik duenik ukatu du GHK-k

Zubietan erraustegitik behera doan Arkaitz errekan larunbatean hilik agerturiko arrain eta aingiren auziarekin, Zubietan

gaineko azpiegiturek zerikusirik izan dezaketenik ukatu du Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioak (GHK). “Gipuzkoako Ingurumen Guneko plantek ez dute ezer isurtzen ubideetara”. Bai Tratamendu Mekanikoko Biologikoa, erraustegian, biometanizazio plantan eta eskorriak tratatzeko azpiegituran baliatutako ura zirkuitu itxi batean mugitzen da GHK-ren esanetan. Ur hauek arazketa sistema propioak dituzte, “kanpora ezer isuri beharrik izan gabe”.

Eremu horretatik errekarra isurtzen duen azpiegitura bakarria euri-uren biltegia da, bildutako euri-urak gainezka egiten duenean.

## Ikerketapean

Larunbatean Zubietan izandako gertaera URA Uraren Euskal Agentzia ikertzen ari da. “Balizko isuri baten jatorria aztertzekeo laginak hartu ditu zonaldean”, GHK-k dioenez. Bere oharrean bada nabarmentzeko moduko esaldi bat; GHK-k dio aurrez antzeko egoerak gertatu izan direla eta kasu horietan eginiko ikerlanek argitu dutela, isurien jatorriek Zubietan gaineko azpiegiturekin zerikusirik ez dutela izan. “GHK-k guztiz kolaboratuko du eta URA agentziari duen informazio guztia helaraziko dio, gertatu dena guztiz argitzen laguntzeko”.

## Gipuzkoako Foru Aldundia: “Nor izan den eta zergatik gertatu den jakin nahi dugu”

Foru ingurumen diputatu eta Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioko (GHK) lehendakari Jose Ignacio Asensiok auzia ikerketapean den arren,

Zubietan gaineko azpiegiturek hilik agerturiko arrainekin zerikusirik ez dutela adierazi du. Euri-urak biltzeko deposituak bildutakoa baino ez duela

isurtzen errekarra. Baina aitortu duenez, aurrez beste bi isurketa izan ziren, 2018an eta 2019an. URA-k ikertu zituen eta “argi utzi zuen isurketak ez zituztela

planta hauek eragin”. Edozein kasutan, gertaturikoa ezagutzeko asmoa agertu du. “Nor izan den eta zergatik gertatu den jakin nahi dugu”.



## GuraSOS: “Uraren Euskal Agentziak ez du bermerik ematen”

**G**uraSOSen esanetan, “gezurra da errauste-giagatik gai kutsakorak dituen uren isuririk aurreikusten ez duenik, GHK-ren oharrak sinestarazi nahi duen moduan”. Ingurumen baimenak dioena gogorarazi du. “Aparkalekueetatik eta bideetatik datozen eta kutsadura arrastatu dezaketen euri-urak dekantagailu eta koipegabetezko gailuen sistemaren bidez tratatuak izango dira, Arkaitza ubidera isuri aurretik”.



GHK-ren esanetan, Zubieta gaineko azpiegiturek ez dute zerikusirik izan, larunbatean Arkaitz errekan hilik agerturiko arrainekin. Ikerketapean den auziari buruz GHK-k adierazitakoa gezuratu du GuraSOSek.

GuraSOSek aditzera eman duenez, ez da egia kanpoaldera isuririk ez denik egiten. Ingurumen baimenak Añarbeko araztegiara bideratzea aurreikusia du.

### Aurrekariak Zabalgarbin

Erraustegiaren eta isuriaren arteko lotura indartzen du GuraSOSek gaineratzen duenez, aurrez Zabalgarbin jazitakoak. GuraSOSek gogorarazi duenez, “2010ean 30.000 euroekin zigortu zuten urak kutsatzeagatik, hainbat jarduera (galdara labeen garbi-

**GURASOS**  
**“Egungo ingurumen baimena ez da eraginkorra eta bertan aurreikusiak dauden kontrolak, sinpleki, ez dira aktibatu”**

keta lanak) egin ostean, horretarako egokituak ez zeuden zonaldeetan, ez baitzeuden impermeabilizatuak”. Isurketa haietan, “hainbat metal astun (arsenikoa), kloruroak eta eroankortasunaren areagotzea antzeman zuten”.

GHK-k adierazi duenez, URA Uraren Euskal Agentziaren esku geratu da larunbatean Zubietan jazitakoaren ikerketa lana. Horrek GuraSOSen esanetan, “ez du zoritxarrez inolako bermerik ematen. Irizpide independenteekin zuzenduriko egitura teknikoak behar lukeenak, zuzendari politikodun administrazio baten parte dira”.

### “Zeintzuk dira erantzuleak?”

GHK-ren oharrak dio, URA-k isuriaren erantzukizuna erraustegiarena ez dela jabetuko dela, “aurrez antzeko egoerak

gertatu izan diren bezala”. Hitzok GuraSOSek ondorioztatzen du, “aitortzen ari da, iritzi publikoak ezagutzen ez dituen bestelako gertakariak izan direla, eta antzeko egoeretan”.

Honen aurrean GuraSOSek galdetzen du, “antzekoak, kasu honetan bezala, arrainak masiboki hiltzeraino? Zergatik ezkutatu dituzte gertaera horiek? Non daude ikerketak? Zeintzuk izan dira erantzuleak?”.

### “Baimena iraungita dago”

Erraustegiaren egungo egoeraz ohartarazten du GuraSOSek. “Egungo ingurumen baimena ez da eraginkorra eta bertan aurreikusiak dauden kontrolak, sinpleki, ez dira aktibatu. Azpiegiturek urtebete daramate probaldian, baimenak gehienez 5 hilabeteko epea aurreikusia duenean eta zazpi hilabete eta erdiz luzatu dutenean. Apirilaren 18an amaitu zen baimena egokitzeko zuten 48 hilabeteko epea. Honenbestez, baimena iraungita dago”.

## Usurbilgo Udala: “Nahiko ziur gaude isurketaren jatorria errauste-plantan edo TMB plantan dagoela”

Udala gertatu dena “ahalik eta azkarren” erakundeekin argitzeko lanetan dabil. Jakin ahal izan dutenez, URA-k laginak hartu ditu, Diputazioko Flora eta Fauna arduradunek hildako arrainak zenbatu dituzte, ur laginak Fraisoro ari da aztertzen. “Birpopulatze neurririk ez dutela aurreikusten ere adierazi digute: ezkailuak ezin omen dira birpopulatu, eta aingire beren kasa birpopulatuko omen dute erreka”, Agurtzane Solaberrieta alkatearen esanetan. Isuriaren jatorria aztertzeko Donostian kokatua egon baina azken me-

troak Usurbildik zeharkatzen dituen errekan laginak hartu ditu Udalak. “Asensioak kontrakoa badio ere, gu nahiko ziur gaude isurketaren jatorria errauste-plantan edo TMB plantan dagoela, han inguruan ez baitago beste jarduerarik. Lehen aldia da halako zerbait gertatzen dela”, gogorarazi du alkateak.

Osasun krisialdi betean gauden honetan, “gure osasuna arriskuan jar dezakeen” azpiegitura dugula gogorarazten du eta ezinezona areagotzen duela, isuri honek eta “egunerokoan

ikusten ditugun ketzarrek”.

### Kudeaketa pribatuaren esku

Gertakari honek agerian uzten du beste behin alkatearen iritziz, “errauste-plantak kutsadura baino ez duela zabaltzen eta isuriaren gaineko kontrol eza”. Zaldibarko zabortearen antzera, erraustegiaren kudeaketa pribatua dela gogorarazten du alkateak. Eusko Jaurlaritzaren ikuskapenak noiz egingo diren aurrez jakinarazten zaizkie eta “duela gutxi jakin dugu Ingurumen Sailak zortzi teknikari baino ez dituela

horrelako azpiegitura guztien ikuskapenak egiteko”.

### Gardetasun eza

Erabateko gardetasun eza salatu du Usurbilgo alkateak, eta gertatu dena argitzearekin batera, dauden kontrol mekanismoak edo neurri zuzentzaileak argi uztea eskatu die. “Inguruko erakundeok eta herritarrok ez dakigu zer-nolako kontrol-mekanismoak dituen Foru Aldundiak zein GHK-ak errauste-plantaren jarduera kontrolatzeko eta, esate baterako, halako isuriak saihesteko”.

# Erraustegia bermerik gabe martxan egotea salatu dute

Zubietako erraustegia estatu alarma egoera amaitu eta aste gutxira jarriko dutela guztiz martxan berretsi dute Foru Aldunditik. Une horretan, “behin betiko baimena” eskuratzeko dokumentazioa aurkeztu asmo dute Eusko Jaurlaritzan. Eta hortik “aste gutxi izango dira”, Jose Ignacio Asensio foru ingurumen diputatuaren esanetan erraustegia guztiz martxan jartzeko. Halere, noiz izango den zehaztea “ez dago gure esku”, adierazi du berriki Asensio. Bitartean probaldi fasean segitu duela iragarri zuten.

## Probaldi epearen luzapena

Gipuzkoako Hondakinen Kontsurtzioak (GHK) apirilaren 28an eginiko batzarrean Zubietan gainean eraikitako azpiegiturei lotutako erabakia hartu zuten; probaldi fasea luzatzea. “Gipuzkoako Ingurumen Gunea” deitzen dioten eremu horren kontratua aldatzea onartu zuten batzarkideen %65aren aldeko bozkekin. Kontsurtzioaren esanetan, “COVID-19ak eragindako osasun larrialdiari aurre egiteko Alarma Egoeraren adierazpenak, Ekondakin sozietate emakidadunak GIG-1 martxan jartzeko amaierako egokitzapeneko proba eta jarduera zehatz batzuk ezin bukatu izanak era-



Zubietan gaine azpiegituren probaldi fasea luzatzea onartu du GHK-k, “Gipuzkoako hiri-hondakinen tratamendua bermatzeko, osasun agintaritzak eta Trantsizio Ekologikoko Ministerioak ezarritako irizpideak betez”.

## HERRITAR TALDE BAT

**“GHK-k ofizialki onartu du azken 4 urte hauetan salatzen aritu garena: dioxinak eta furanoak ez direla etengabe neurtuko baizik eta bi hilean behin lehen urtean; eta hortik aurrera hiru hilean behin”**

gin du” erabaki hau hartzea; “ezohiko probaldi epea” deitu diotena ezartzea hain zuzen.

Ondorioz, Zubietan gaine azpiegituren probaldi fasea luzatzea onartu du GHK-k, “Gipuzkoako hiri-hondakinen tratamendua bermatzeko, osasun agintaritzak eta Trantsizio Ekologikoko Ministerioak

ezarritako irizpideak betez” eta honenbestez baita kontratu aldaketa tramitatu beharra ere, “alde guztien betebeharrak eta ezohiko proba epealdi honetan emakidadunari egin beharreko ordainketa erregimena erregulatzeko”.

GHK-tik ohartarazi dutenez, kontratu aldaketak “ez ditu lizitazio eta esleipenaren oinarriko baldintzak aldatzen, eta Alarma Egoerari irtenbidea emateko ezinbestekoak diren aldaketak egiten ditu bakarrik”. Kontsurtziotik iragarri dutenez, “ezohiko probaldi epe” honetan zehar, “kontrol eta segurtasun baldintza horiek beteko ez balira” GHK-k “probak etetea agindu ahalko

du, betetzen direla bermatzen duten neurri egokiak hartu arte. Dagozkion ordainketa ere etengo lirakeke”.

## Etengabeko neurketarik ez

Igande eguerdiko 12:00etan erraustegia salatzeko sirena hotsak piztera deitzen duen herritar taldeak gai hau hartu du ahotan. “Erraustegia martxan da behar dituen bermerik gabe. Horrela onartzen dute alarma egoera betean onartu duten kontratuaren aldaketan. Ozenago esan dezakete, argi-argi ez!”. Deitzaileen esanetan, “Gipuzkoako Hondakinen Kontsurtzioak ofizialki onartu du azken 4 urte hauetan salatzen aritu garena: dioxinak eta furanoak ez direla etengabe neurtuko baizik eta bi hilean behin lehen urtean eta hortik aurrera hiru hilean behin”.

Gaineratu dutenez, “salbuespen egoera horretan, sozietate emakidadunak aldi baterako galdu ditu GIG1aren errendimenduaren probak eta egiaztapenak amaitzeko eta obrak egiaztatzearen akta eta erabiltzen hasteara formalizatzeko bitarteko teknikoak. Hori dela eta, ezin izan dira instalazioaren proba jakin batzuk eta azken doikuntzetarako jarduketa batzuk egin, erabiltzen hasteko ezinbestekoak”.

## Aitzagaren memoria osatzen laguntzeko deia

Duela aste gutxi, konfinamendu egoera betean, Espainiako Auzitegi Nazionala herriko taberna eta elkarteen “kontu korranteak enbargatzen hasi zela ohartu ginen”, ohartarazi du Usurbilgo Sortuk. Urrats honen eragina azpimarratu du ezker abertzaleak. “Badakigu hau Aitzagaren eta beste

herrikoen itxieraren aurreko urratsa izan daitekeela, baina hala ere ez dakigu honek ze epetan ekarri dezakeen eskenatoki hori”.

Enbargoen aurrean, erre-kurtsoa aurkeztu eta onartu dutela berri eman du Usurbilgo Sortuk, “diru guztia itzuli ditugutela aipatu nahiko genuke”.

Informazio gehiago jaso ahala jakinarazteko asmoa dute. Bizi dugun egoerak ahalbidetuko balu, Herri Batzar bat egin asmo dute, “Ezker Abertzalea saretu eta indartuz”. Horrekin batera, “izango dugu parada irudimenez eta protestarako molde berriak erabiliz gure Aitzagari babesa agertzeko”.

## Oroitzapen zatien bilketa

Elkartearen memoria osatzeko deia egiten dute. Oroitzapen eta eginiko ekimenak partekatze gongon bita luzatu dute; irudiak, bideoak, marrazkiak, audioak... “ongi etorriak izango dira!”. Eduki hau guztia usurbilsortu@gmail.com helbidera helaraztera eskatzen dute.

Aurten etxean ospatu beharko dugu **USURBILGO SAGARDO EGUNA**,  
**Egin TXOTX SAIZAR SAGARDOAREKIN!**



# SAIZAR

## ETXERAKO ZERBITZUA USURBIEN:

### 1. Saizar Sagardo Naturala

6 botilako sagardo kaxa 11 €

12 botilako sagardo kaxa 22 €

• **ESKEINTZA:** 24 Botila erosita **6 Sagardo-edalontzi DOHAIN!**

### 2. Saizar Euskal Sagardoa

6 botilako kaxa 15 €

• **ESKEINTZA:** 12 Botila erosita **6 Sagardo-edalontzi DOHAIN!**

*\*Prezioak BEZ eta etxerako zerbitzua barne*

#### ESKAERAK EGITEKO:

Emaillez: [pedidos@sidrassaizar.com](mailto:pedidos@sidrassaizar.com)

Telefonoz: 943 36 45 97

#### ORDAINKETA MODUA:

PayGold (txartela)

#### BANAKETA:

Maiatzak 21, Osteguna, goizean 09:00-13:00

Maiatzak 22, Ostirala, arratsaldean 14:30-18:00



**MAIATZAREN 24AN**  
**TXOTX EGIZU**  
**SAGARDO**  
**BOTILA BATEKIN**  
**🍏 🍏 🍏 ETA 🍏 🍏 🍏**  
**SARE SOZIALETAN**  
**PARTEKATU!**

#USURBILGOSAGARDOEGUNA

#SAGARDOEGUNA



HERRIKO SAGARDOA EROSI BERTAKO SALTOKIETAN EDOTA ZUZENEAN USURBILGO SAGARDOTEGIEI.



# Lehen terrazak zabaldu dituzte



Kale Nagusia 10eko pasabidean hiru mahai zituen lehen Opil Goxok. Distantziak modu egokian mantentzearen, orain bi bakarrik ipintzen dituzte. Kaffa kafetegia Erreka Txiki kalean da eta bi aldeetara du terrazak.

**L**ehenengo fasea indarrean sartzearekin batera, hainbat terraza zabaldu zituzten astelehenean. Kaffa, Opil-Goxo, Laukote eta Artzabalgo terrazetan jendea ibili zen goizean goizetik.

## Kaffan, terraza bi aldeetara

Kafe txukun bat hartzeko gozoz zeuden herritarrak. Ia bi hilabetez itxita egon ondoren, Kaffa kafetegian mugimendua handia izan zen astelehen goizean. Bi aldeetara du terrazak eta, horri esker, bezero ugari atenditzeko aukera izan zuten. Kaffa barruan ordea, ezin da kaferik hartu. Ez mostradorean, ezta barruko mahaitxoetan. Soilik terrazan eseri gaitzke kafea edo dena delakoa hartzera.

## OSTALARITZA

**“Kaffa, Opil Goxo, Laukote eta Artzabalgo terrazak astelehen goizean zabaldu zituzten. Ostalaritza hasi da gutxinaka bere onera itzultzzen”**

Lanera bueltan, pozik zeuden Kaffako arduradunak. Hori bai, orain lana bikoitza dela adierazi ziguten: mahai bat libratu orduko desinfektatu egin beharra dago.

**Opil Goxon ere terraza zabalik** COVID-19 birusak eragin duen osasun krisia hasi baino lehen, Opil Goxok mahai txiki batzuk ipintzen zituen Kale Nagusian. Eta pasabidean, beste hiru ma-

hai. Kale Nagusikoak ezin izan dituzte jarri eta pasabidean bi mahai baino ez, segurtasun neurriak behar bezala bete ahal izateko.

Okindegia ere bada Opil Goxo, eta egunotan eramateko kafea bakarrik saldu zezaketen. Orain terrazarekin, bezeroek kafea bertan har dezakete. Opil Goxoko nagusiak penatuta sumatu ditugu ordea, eguraldiak oraingoz ez duelako asko lagundu.

Asteotan goizez bakarrik zabaltzen zuten okindegika-fetegia baina aste honetan arratsalde ere irekitzen hasi dira. Dena den, bezeroek ez dute oso argi lehenengo faseko arauak zeintzuk diren. Hala adierazi digute Opil Goxokoek. Hori da hain zuzen,


egunotako tertulietako hizpide nagusia. Irizpide argien falta.

## Terraza zabala Laukoten

Artzabal auzoko Laukote-Ogi Berri okindegian terraza zabala dute. Aterpe batek babesten du gainera. Mahai dezente ipintzeko aukera dute. Astelehen eguerdian, argazkiak ateratzera hurbildu ginenean, jende ugari zegoen bertan.

## Artzabal jatetxean, terraza bikoitza

Artzabal jatetxeak ere terrazak zabaldu zuen aurreko astelehenean. Baserriaren atarian aulki eta mahai ugari jartzeko tokia dago, eta albo batean karpabat dute. Karpa zuriak terrazak estaliaren funtzioa beteko du datozen egunetan.



Artzabal auzoan daude Laukote kafetegia-okindegia eta Artzabal jatetxea. Astelehenetik terrazak zerbitzua eskaintzen dute biek.

# Tokiko produktuen garrantzia inoiz baino biziago, aurtengo Baserritarren Egunean

Ostiral hau, San Ixidro, baserritarren eguna izango dugu. Maiatzaren 15 zeharo ezberdina ordea, COVID19-ak baldintzaturikoa. Lur lanketan direnei, baserri nahiz baratzeak jarduna ez zaie eten, bai ordea, ekoizitakoa plazaratzeko aukera. Herrian ekoitzi, saldu eta erostearen garrantzia lerrootan.


## Mirotz Arrospide:

**“Nire jardueran dezente eragin du. Nire bezero gehienak jateak dira”**

Santueneko erriberetan duen lursailen dihardu lanean. Bere ogibideari ordea bete-betean eragin dio COVID19-ak. Jakiak ekoizten segi duen arren, “nire lan jardueran dezente eragin du, nire bezero gehienak jateak baitira”. Egoera honen aurrean NOAA!ri adierazi dionez, alternatibak bilatzera derrigortua egon da. “Generoa saltzeko beste bide bat bilatu beharko dut”. Jateak saltzeko ezinik, saltokietan du, baratzean landutakoari irtenbidea bilatzeko bidea. Momentuz, adierazi digunez, “dendentan saltzen ari naiz eta denda gehiago bilatuz gero, udan etorriko den generoari nolabaite-



Pili Arroio, Koldo Huegun eta Mirotz Arrospide elkarrizketatu ditugu. Herrian ekoitzi, saldu eta erostearen garrantzia nabarmendu digute hirurek.



## PILI ARROIO, ZUBIETAKO ZUGASTI BASERRIKOIA

**Bi hilabeteko etenaldian babes falta izan duela adierazi digu**

ko, hala moduzko irteera bat aurkituko nioke”.

## Pili Arroio: “Saldu ezinik egon gara bi hilabetez”

Ez du etenik izan etxeko jarduean, baina Zubietako Zugasti baserriko Pili Arroioak bi hilabete eman ditu ekoiztutakoa saldu ezinik. Etxeko produktuak Lasarte-Oriako azokan merkaturatu ohi ditu astean bitan. “Baina martxoan hasieran

debekatu egin ziguten, gure produktuak saldu ezinik egon gara bi hilabetez”, adierazi zion NOAA!k elkarrizketatu zuenean. Orduetik, ekoizitakoa ezin saldu, jendaurreko salmenta posturik ezin jarri, baina “postua ordaindu behar”. Eta bitartean, etxean ekoizitakoa “alferrik galtzen”. Pilik aipatu digunez, egia da “garai hauetan ez da asko ekoizten, baina beti dagoena galtzen ari gara”. Patata, ardi nahiz behi esnea, zerbak, letxugak, azenarioak, arrautzak... “Hori guztia ezin saldu”.

Maiatza hasieran itzuli zen Lasarteko postua jartzera, baina bi hilabeteko etenaldian

babes falta izan duela agertu du; biziago egoeraz galdezka ibili arren, informazio eta argibide falta. Bizi dugun osasun larrialdi egoera honetan, kezka du ez bakarrik birusa eragiten ari denagatik eta horrek ekar ditzakeen ondorioengatik. Etxe ondoan, gain gainean duten kea darion erraustegiagatik baita. “Kirats handia etortzen da une batzuetan. Kirats hori hala etortzea ona ez da gure airearentzat”, adierazi du kezkatuta. Agintariek “baserritarrek laguntzeari baino” erraustegia, AHT-a eta antzeko proiektu erraldoiak sustatzeari garrantzia handiagoa ematen dietela dio.

## Koldo Huegun: “Gure lana ikusarazteko balio izan du”

Baserri barruko lana ez zaio eten, Lumagorri oilaskoen hazkuntzan lan egiten duen Koldo Hueguni. “Bi astez geldirik egon ginenean lana pilatu egin zen” eta orain lan karga horri aurre egiten ari da. COVID19-ak eragindako kalteez gain, kakotsa artean aipatu digu “on” egin diela bizi dugun egoerak, “baserritarrek hor gaudela aipatzeko eta gure lana ikusarazteko”. Banatzaile handien jarduna kolokan geratu

denean, komertzio txikiek bertako produktuen aldeko apustua egin dute, eta kontsumitzaileak ere tokiko elikagaiak kontsumitzera bultzatu ditu egoerak. “Bezero, erosle gisa gure kontzientzia piztu egin du”, adierazi digu Huegunek.

Egoera honek zenbat iraungo duen ezin jakin noski, “seguru asko orain arte irabazi dugun bezeroen %80a berriz ere banatzaile handien esku geratuko da, baina %20a ira-

bazia izango dugu”. Eta hain ere, ezingo dute merkatu osora heldu. Huegunek aipatu duenez, “ez gara iristen hemen kontsumitzen den %5era ere”.

## “Gazteei eman aukera bat”

Horregatik argi dio, “baserritarren artean esperantza piztu eta kontsumitzaileen aldetik kontzientzia piztu dadila”. Hartara, bertan ekoitzi eta bertako produktuak erosita, “sortuko dira baserritar eta enpresa be-

rriak”. Bizi dugun egoera zail honetan, etorkizunerako alternatiba marrazten du; “hainbeste langabezia eta lurrak geldirik ditugun garaian, gure gazteei eman aukera bat. Egin hemengo kontsumitzeko hautua eta enplegua sortuko du horrek”. Baserritarren Egunari begira, mezu hau du Koldo Huegunek: “Animatzeko jendeari hemen gaudela. Une txar hau igarotzean ere baserritarrez gogoratzeke”.



# Usurbil F.T.-ren Erregionaleko taldea mailaz igo da

Gipuzkoako Futbol Federazioak amaitutzat ematea erabaki du 2019-20 denboraldia. Erabakiak berri ezinhobea dakar Usurbil Futbol Taldearentzat. Saillkapeneko lehen postuan zegoen Erregionaleko taldea mailaz igo da, klubetik berri eman dutenez.

Espainiako Federazioaren irizpideei jarraiki eta Gipuzkoako klubak entzun eta gero, "maila igoerak burutuko direla eta maila jaitsierak ekidingo direla" jakinarazi du Gipuzkoako Futbol Federazioak.

**Nahi bezala akaso ez, "baina merezita"**

Mikel Irazusta Usurbil F.T. Erregional taldeko kideak pozarren



Erregional mailako taldeak denboraldi ona osatu du. "Lehenengo Erregional Mailan geunden eta Erregional Preferentera igo gara", azaldu digu Mikel Irazustak.

## AMAITU DA DENBORALDIA

**Maila igoerak burutu eta maila jaitsierak ekidingo direla jakinarazi du Gipuzkoako Futbol Federazioak**

eman zuen albistearen berri Facebooken: "Ez nahi bezala, baina bai merezita!". Azken

hiru urte hauetan igotzeko ahalegina egin eta gero, "lugarrenean lortu dugu ondo mehezitako igoera".

Mailaz igotzeko txartela Liga osoa jokatu eta gero eskuratzea politagoa izango zela aitortzen du Irazustak, "baina lortu badugu, orain arte egindako lana latza izan delako da! Plazer handi bat zuen ondoan jokatu izana!! Gora Usurbil FT!".

## Parrokiatik oharra: "Oraingoz itxarotea erabaki dugu"

Eliz-ospakizunak egiteko aukera zabaldu da baina neurri jakin batzuk bete behar dira. "Parrokietako hainbat kide elkartu gara egoera baloratzeko eta oraingoz itxarotea erabaki dugu". Ibon Alberdi Andatzazpi Pastoral Barrutiko apaizak adierazi duenez, "jakinaraziko dugu noiz hasiko garen eliz-ospakizunekin". Bien bitartean "zaindu, animo eta jarrai dezagun orain arte bezala gure fedea zaintzen, bizitzen. Badakizue non gauden zernahirako".



"Aurrerago jakinaraziko dugu noiz hasiko garen eliz-ospakizunekin".

## KAFETEGIEN TERRAZEN IREKIERA

OGITARTEKOAK, OILASKOAK, TORTILAK ERAMATEKO...

**TERRAZA ZERBITZUA!**

Okindegia - Kafetegia

*kaffa*

TERRAZA ZERBITZUA! • kafea eta ogia eramateko

OGIA • KAFEA ERAMATEKO

**ORAIN TERRAZA ZERBITZUA!**

OGI BERRI  
ARTISAU OKINAK





Alazne Arruti Bengoetxea

**E**z dakit, zuei ere hala gertatzen ote zaizuen, baina iraganera lotura handia mantentzen duen pertsona naiz. Begirada sarri atzera zuzentzen dut, zentzurik hobe eta txarreanean. Txarreanean diot, bizitzan gehien eragindako gauza edo une ez horren atseginetatik askatzea nahi baino gehiago kosta izan zaidalako; jakin badakidan arren, hartatik ere ikasi dudala. Eta zentzurik hoberenean, oroitza penen bitartez, gauza baliotsuak jaso ditudan neurrian ematea gustatuko litzaidakeelako.

Aurrekoan osaba-izeben urtebetetze eta ezkontza urteurrenaren harira, haiekin partekatze bideo bat egitea otu zitzaizen etxekoei. Mobilizazioaren dimentsioa irudika dezazuen, egin kontu nire amak zazpi anai-arreba dituela. Eta zuhaitzaren adar horri jarraituz gero, ni eta anaiarekin, guztira hamabi lehengusu garela, 3. belaualdia perretxikoen antzera ugaritzen ari den bitartean, noski.

Izeba-osaba batzuk, urteetan aurrea doaz (barka iezadazue atrebentzia) eta nahiz eta laster, haien urte eskasetako bilobak teknologiarekiko trebeagoak izango diren arren, guztiek lortu zuten lotsak alde batera utzi eta kameraren parean jarriaz, malko eta algarra festaren

## Etorkizuneko niari



“FutureMe.org webgune honen bitartez gutun bat idatzi diezaiokezu etorkizunari”. Argazkia: Christin Hume, Unsplash.

### ALAZNE ARRUTI

**“Erraza da oso: osatu idatzi nahi zenukeen hori, sartu zure helbide elektronikoa eta aukeratu zein data zehatzean jaso nahi zenukeen bueltan”**

parte bilakatzeko keinuren bat osatzea. Bide batez, biba zuek!

Eta halaxe batu ziren bertso musikatuak, leihotik kanpora kantaturiko abesti zaharrak, azaña eta aldrebeskeriak, hitz goxoak eta errieta barregarriren batzuk, eta baita udako oporraldietan arroka zuloetan utzitako kontuak ere. Imajina genezaken arren, esango nuke ez gixela jabetu zeinen opari ederra sortu genuen bideoa osorik ikusi eta protagonisten esker onetan urtu ginen arte.

Keinu eta esketxen artean, bada bereziki entzutea gustatu

zitzaidan mezu bat: diotenez, garunak momentu gogor edo txarrak ezabatzeko gaitasuna du. Baina kontrara, une gozo eta gogoangarriak betiko gordetzen ditu. Horren adierazle da bideo hartan pilatu zen oro eta aizue, zeinen ederra den sentimenduok adierazi eta bihotzak zabaltzea!

Geroztik, iraganari ez ezik, etorkizunari begira jartzeko aitzakia ere izan dut. Oraindik ama izango naizen ez dakidan arren, gustura jasoko nuke halako sorpresa bat neure ondorengoengandik. Ordura arte itxaron beharrean ordea, nigandik abiatzea erabaki dut, horretarako FutureMe.org edo “etorkizuneko nia” proiektua baliatuaz.

Webgune honen bitartez gutun bat idatzi diezaiokezu etorkizunari. Egin behar duzun erraza da oso: osatu idatzi

nahi zenukeen hori, sartu zure helbide elektronikoa eta aukeratu hemendik urte beterra, hirura, bostera edo bestelako edozein data zehatzean jaso nahi zenukeen bueltan. Korreoa baieztatu eta itxaron besterik ez duzu egin behar. Ahaztu mezuaz, eta utzi bizitzak sorpresaz harrapa zaitzan.

Hasiera batean, ekimenari garrantzia askorik eman ez nion arren, duela urte batzuk, ikastolan egindako antzerako ariketa batez akordatu nintzen. Lehen mailan geundela, irakasleak heldu bilakatzeko izan nahi genuen hori deskribatzeko eskatu zigun. Non bizi nahi genukeen, zertan lan egin edota irudikatu genezakeen, edota amesten genuen hartaz libre eta zabal jarduteko. Eta behin, azken mailara heltzean, uda hasierako egun zirrargarriak puri-purian zirenean, itzuli zizkigun bueltan. Ez naiz mezuaz osorik oroitzen, baina badakit iraganeko niari ariketa serioxeago egin ez izana leporatu niola. Kosta egin zitzaidan irakurri nuen horrekin identifikatzea.

Oraingo honetan ordea, urte honek eskaintako aukera berri eta gauza onak baliolan jartzeko erabili dut aukera. Oinak lurrean eta barrura begira jarri naiz. Eta zuk, zer esan edo gogorazi nahi zenioke etorkizuneko zu kuttunari?

Alazne Arruti Bengoetxea

Ainhoa Azpirotz Eizmendi

Ugaitz Agirre Zapirain

Idoia Torregarai Martija

ARRANDEGIA  
**PELLO**  
ASTEARTETIK-LARUNBATERA  
8:30-13:30  
EGIN ZURE ESKAERAK WHATAPP-ETIKI  
650 31 31 91 USURBIL

Zuen publizitatea hemen  
943 360 321  
publizitatea@noaua.eus

**Inaki Iturgintza**  
BEROKUNTZA • GASA • AIRE EGOKITUA • ZORU BERO-EMAILEA  
ITURGINTZA • ENERGIA BERRIZTAGARRIAK  
info@inakiiturgintza.com • www.inakiiturgintza.com  
600 024 825


# Bertatik bertara ezin bada, modu telematikoan

## USURBILGO LANBIDE ESKOLAK INTERNET BIDEZKO BI BISITA GIDATU ANTOLATU DITU

Usurbilgo Lanbide Eskolak urtero antolatzen ditu ate irekien jardunaldiak. Birusak ekarri duen egoerak hala behartuta, modu telematikoan egingo dituzte maiatzeko bisita gidatuak. “Bigarren fasera pasatzen bagara maiatzaren 27an, aukera egon daiteke talde txikitan zerbait antolatzeko”, azaldu digute. Bien bitartean, lhusurbil.eus web orrialdean izango duzue bisita gidatua parte hartzeko aukera.

**NOAUA! COVID-19 birusaren ondorioz, ate irekien jardunaldiak ‘online’ izango dira halabarrez. Interesa duenak, zer egin behar du?**

**Usurbilgo Lanbide Eskola.** Urtero antolatzen ditugu ate irekien hiru saio. Aurten, lehenengo aldiz otsailean egin genuen horietako bat eta beste biak maiatzerako utzi genituen. Orain COVID-19a dela eta, ezin izango ditugu beti bezala egin. Jarri ditugun datak maiatzak 23 eta 27 izan dira, ahal zen beranduen, ea horrela modu



Irudian, Elektronikako robot bat. Usurbilgo Lanbide Eskolaren web orrian sartzen bazarete, bertan topatuko duzue bisita gidatua modu telematikoan egiteko aukera. Hau da helbidea: [www.lhusurbil.eus](http://www.lhusurbil.eus)

### MAIATZAK 23 ETA 27, BISITA GIDATUAK ONLINE

**“Bakoitzak aukeratu duen espezialitateko irakasleekin zuzenean hitz egiteko aukera izango du eta horrela zalantza guztiak argitu”**

presentzian egiteko aukera dugun. Baina zaila ikusten dugu. Agian bigarren fasera pasatzen bagara maiatzaren 27an, aukera egon daiteke tal-

de txikitan zerbait antolatzeko. Ikusi egin beharko da. Dena dela, modu telematikoan egiteko gure web orrialdetik izango da sarbidea. Han jarriko dugu lotura bat, klik bat bakarrik eginez, erraz konektatzeko.

Gomendio bat: ate irekien saioetan parte hartu baino lehen, komeni da izena ematea gure web orrialdean. Bisita birtualaren estekarekin izena emateko formulario bat dago. Ez da derrigorrezkoa baino guretzako abantaila da, taldeak

hobeto antolatzeko.

### Nolakoa izango da bisita?

Bakoitzak aukeratu duen espezialitateko irakasleekin zuzenean hitz egiteko aukera izango du eta horrela zalantza guztiak argitu. Nahi duen guztiarentzat duela astebete web orrian jarrita daukagu bisita birtuala egiteko aukera. Espezialitate bakoitzeko bideoak daude ikusgai, instalazioak eta zikloak ezagutu ahal izateko.

Ahal bezain laster bisita presentzialak eskainiko ditugu. Bakarka edo talde txikiak antolatuz, beti ere aurretik zita emanez. Hori ate irekien egunetan ere azalduko dugu.

### Zein da Usurbilgo Lanbide Eskolaren eskaintza akademikoa?

Erdi eta goi mailako zikloak eskaintzen ditugu, euskaraz eta erdaraz, eta goi mailakoetan parte bat ingelesez egin daiteke. Gure zikloak espezialitate hauetakoak dira: Administrazioa, Elektrizitatea eta elektronikoa, Mekanika, Mantenimendua, Energia eta ura.

## “Izen-ematea ekainaren lehen hamabostaldian izaten da. Eta izena ematen ez duenak ezin du gero matrikula egin”

**NOAUA! Maiatzaren 23an eta 27an egingo dira ate irekien jardunaldiak. Dena den, matrikulazio kanpaina noiz irekiko da?**

**Usurbilgo Lanbide Eskola.** Ba oraindik izena emateko eta matrikulaziorako epeak ez daude ezarrita. Normalki izen-ematea (aurrematrikula) ekainaren lehenengo hamabostaldian izaten da. Azpimarratu nahi nuke fase hau oso garrantzitsua dela. Iaztik arautegia aldatu zen eta izena ematen ez duenak ezin du gero matrikula egin.



Administratiboko gela berrituak irailean estreinatu zituzten. Ethazi metodologiarekin lan egiteko prestatuak daude.

Beraz, ezinbestekoa da ekainean izena ematea eta gainera ikasleek kontu handiarekin egin behar dute, zerrendatu

egin behar dituzte beraien lehentasunen arabera zein espezialitate eta zein ikastetxeetan egin nahi duten. Epea amaitu ondoren Hezkuntza Sailak ateratzen ditu onartuen zerrendak. Ondoren uztailean izaten da matrikulazio garaia, normalki hilaren erdi aldera.

Aurten ez dakigu data horiek beti bezala izango diren edo aldatu daitezkeen. Pentsatzen dugu ekaineko mantenduko dutela beti bezala eta agian uztailekoa zerbait atzeratu daiteke.

# Udaletxera joateko, aurrez hitzordua eskatu behar da

**A**larma egoera indarrean sartu zenetik bi hilabete beteko diren maiatzaren 14an, herritarrei aurrez aurreko zerbitzua eskaintzen hasiko dira udaletxea eta gizarte zerbitzuak. Baina aurrez hitzordua eskatu beharko dute herritarrek, hala egiten ez duenari ezingo zaio arreta zerbitzua bermatu. Eta telefono dei horretan zer nolako tramitea egin behar duten zehaztuko du herritarrek.

“Udaleko langileek baloratuko dute ea beharrezkoa den udalera joatea edo Internetez edo telematikoki egiteko modua ote den”. Neurri honekin jende pilaketa saihestu nahi du Udalak. Txanda bakoitzean kontsulta bakarra eta gehienez bi herritar sartu ahalko dira hitzordu bakoitzera; “bietako batek laguntza beharko balu, hirugarren batek sartu ahal izango luke”, ohartarazi du Udalak.

Ahal den neurrian halere, udaletxe barrura sartzea saiheste aldera, beharrik ez bada, zenbait tramite udaletxe kanpoan bideratu ahalko dira. Herrerako langileen irizpideak segitzea ezinbestekoa izango da honenbestez. Udaletik adibide moduan aipatzen dute, dokumentu baten bila joatea.



**Maiatzaren 14tik aurrera, herritarrei aurrez aurreko zerbitzua eskaintzen hasiko dira udaletxea eta gizarte zerbitzuak.**

## NEURRI BERRIAK

**Udal-langileak Joxe Martin Sagardia plaza aldetik sartuko dira eta herritarrek udal erregistroko atetik**

“Kaxa bat jarriko dute, dokumentuak hor utzi eta herritarrek har ditzaten, distantziak mantenduz”.

### Zergak ordaintzeko bi modu

Aukeretako bat udal-langileak ordainagiria eman eta bankura joatearena izango da, “eta bestea, posta elektronikoz egitea izango da. Kontu-hartzaitzatik kode bat bidaliko zaie hala nahi duten herritarrei, eta kode hori baliatu ahal izango dute bai bankura joateko edo Internet bidez ordaintzeko”. Halere,

zergak helbideratzea aholkatzen du Udalak. “Zergak baimendutako epealdiaren azken egunean kobratu ohi dituzte”.

Udaletxe barruan ere neurriak hartuko dituzte; “langileen mahaiak babestu eta distantzia mantentzeko pantailak jarri dituzte”. Herritarrei maskarekin joatea eskatzen zaie, bestela bertan emango zaizkie, eta “sartu aurretik eskuak garbitu beharko dituzte”.

Kontsulta bat amaitzen den bakoitzean, udal-langileak herritarra egon den aulkia desinfektatuko du. Neurri gehiago; udaletxeak sarbide ezberdinak dituzte, aurrerantzean udal-langileak Joxe Martin Sagardia plaza aldetik eta herritarrek udal erregistroa hartzeko Irutasun kalean dagoen atetik sartuko dira.



## Herriko festak osasun krisialdira egokituko dituzte

Eusko Jaurlaritzak, ekainaren 1etik aurrerako udako festa eta kultur ekitaldiak ospatu ala ez erabakitzea, tokian tokiko antolatzaile eta udalen esku utzi ostean, astelehenean Usurbilgo Jai Batzordea bildu zen Potxoenean, alarma egoera indarrean jarri zutenetik lehen aldiz. Jaiak antolatzea erabaki dute, baina ez aurreko edizioetan ospatu izan ditugun moduan. “Festen antolakuntzari beste forma bat ematea erabaki dute. Beraz, festak ospatu, ospatuko dira, nahiz eta beste formatu eta ezaugarri batzuekin izan”, berri eman dutenez. Datozen bileretan zehaztekoak dira, “osasun krisira egokitutako Santixabelen eredu”.

## Errenta mekanizatua aurkezteko aukera

Errenta aitortpena aurrez aurre, Ogasuneko bulegoetan aurkezteko aukera zabaldu du Gipuzkoako Foru Aldundiak. Maiatzaren 13tik uztailaren 29ra bideratu ahalko da aitortpen mota hau. Maiatzaren 12tik uztailaren 7ra eskatu ahalko da txanda. Halere, ahal den neurrian, aitortpena Internet bidez tramitatzea eskatu izan du Aldundiak, zergabidea.gipuzkoa.eus ataritik. Kasu honetan ere uztailaren 29ra arte aurkeztu daiteke errenta aitortpena. Informazio gehiago:

■ 943 113 000

■ gipuzkoa.eus/ogasuna

# Langabetuentzat eta familientzat informazio eta aholkularitza zerbitzua

**B**eterri Buruntzako udalek abian dute, pertsona, langabetu eta familientzako informazio eta aholkularitza zerbitzua.

“Zerbitzu honen helburua herritarrok enplegu arloan eta diru-laguntzen inguruan dituzuen kontsulta espezifikoei erantzuna eman eta egoera bakoitzaren arabera jarraitu beharreko prozedura-jarraibideei buruzko informazioa,

orientazioa eta aholkularitza ematea da. Beti ere, gainontzeko erakunde publikoekin elkarlanean”.

Bi kontsulta mota egin ahalko dira; batetik, enplegu orientazioari eta “hainbat kudeaketa izapidetzeko” laguntza tekniko jaso ahalko da. “Enpleguarekin lotura duten zalantzak (langabezia edo DSBE/RGI eskaera edo berritzea, ERTE-ri buruzko kontsultak...) argitu eta tramite ezberdinak aurrera

eramateko zailtasunak dituzten herritarrei laguntza tekniko emateko zerbitzua”.

Bestetik, bizi dugun alarma egoeraren eraginpean diren pertsona zein familientzako neurri, diru-laguntza eta gizarte-laguntzei buruzko informazioa eta aholkularitza ere eskainiko dute Beterri-Buruntzako udalek. Informazio gehiagorako:

■ beterriburuntza.eus

■ 688 774 650 (09:00-13:00)



# Udajolaserako izen-ematea ostiral honetan amaituko da

Ikusteke dago ordea uztailean zer nolako egoera biziko dugun. Baina momentuz, Udajolas antolatzeko prestaketa lanak abiatu ditugu NOAUA! Kultur Elkartek eta Usurbilgo Udalak. Izen-ematea maiatzaren 15ean zabaldu zen eta ostiral honetan amaituko da. Soilik modu telematikoan egin daiteke inskripzioa. Honako helbidean: [noaua.eus/bereziak/udajolas](http://noaua.eus/bereziak/udajolas)

Izen-ematea bideratu ondoren udalekuak egiteko modurik izango ez balitz, ordaindutako kuota %100a itzuliko da.

## Udajolas 2020

- Online egin behar da: [noaua.eus/bereziak/udajolas](http://noaua.eus/bereziak/udajolas)
- Maiatzaren 1etik 15era (biak barne).
- 4-12 urte arteko haur eta gazteei zuzendua. 2019-20 ikasturteko HH 3-LH6-n ikasten aritu direnentzat.
- Plaza kopurua: Gehienez 200 lagun.
- Ordainketak Laboral Kutxako kontu honetan, maiatzaren 1etik 15era, haurren izen abizenak adierazita: ES28 3035 0140 34 1400025811



Aurten, soilik modu telematikoan egin daiteke inskripzioa.

## UDAJOLAS

**“Udalekuak uztailean egingo dira, 6tik 30era. Azkenean udalekuak ezingo balitz egin, diruaren %100 itzuliko litzateke”**

- Izena ematerakoan erantsi beharrezko dokumentuak:
  - Ordainketa agiria.
  - Gizarte Segurantzako txartelaren kopia edo argazkia.
  - Familia ugarien kasuan, Familia Ugarien txartela edo Familia

Liburuaren kopia.

- Kuota 85 euro, familia ugarietzako prezioa 69 euro.
- Oharrak:
  - Maiatzak 15, izen emateko azken eguna. Epez kanpikorik ez da onartuko.
  - Informazio gehiago: 688 807 336 / [elkartea@noaua.eus](mailto:elkartea@noaua.eus)
  - Guraso-bilera egiterik badago, ekainaren 15ean (astelehena) izango da Sutegiko auditorioan, 17:00etan.
  - Udalekuak uztailean egingo dira, 6tik 30era. Azkenean udalekuak ezingo balitz egin, diruaren %100 itzuliko litzateke.

## Jai eta ekitaldiei lotutako bilera erronda

Eusko Jaurlaritzak, ekainaren 1etik aurrera uda parteko kultur ekitaldiak antolatu ahal izatea proposatu du, baina ospakizunok egin ala ez erabakitzea, tokian tokiko antolatzaile eta udalen esku utzi du. Usurbilen, aste honetan zehar bilera erronda deitu du Usurbilgo Udaleko Kultura Sailak jai batzordeekin eta diru-laguntzak eskatu dituzten kultur eragileekin.

### Talde bakoitzeko, ordezkari bana

Herriko talde bakoitzeko ordezkari bat joan ahal da bilerotara, “jende gutxiago elkartze aldera”.

### Bilera erronda

- Maiatzak 11 astelehena: Santixabeletako Jai Batzordea. 18:00etan Potxoeneako goiko solairuan.
- Maiatzak 13/14: kultur eragileak. 18:00etan Potxoeneako goiko solairuan.
- Maiatzak 15 ostirala: auzoetako jai batzordeak. 18:00etan Potxoeneako goiko solairuan.

## Berrogeialdian daudenek Atez Ateko bulegora deitu behar dute

Gure lurraldea lehen fasera igaro bada ere, birusak eta kutsatze-arriskuak bere horretan jarraitzen dute. Lehen bezain garrantzitsua da hortaz, etxeko hondakinak kudeatzeko irizpideak errespetatzea.

Konfinamendua hasi eta segituan, Udaleko Ingurumen sailak hondakinaren bilketa sistema egokitu zuen. “Funtsean, modu egokituan, COVID-19 birusak kutsatutako edo berrogeialdian zeuden herri-

arren hondakinak berezita jasotzea izan da, hasieratik, helburua”. Irizpide horiek indarrean jarraitzen dute, eta zorrotz betetzearen garrantzia nabarmendu du Udalak.

### Garbitasuna, ezinbestekoa

Berrogeialdian dauden herritarrek Atez Ateko bulegora deitu behar dute: 900 776 776. Gainerako herritarren kasuan, hondakinak utzi aurretik zein kuboak jaso ostean eskuak gar-

bitu eta kuboak desinfektatzea gomendatzen da.

### Garbigunea zabalik

Atalluko Garbigunea zabaldu dute: erabilera baldintzak eta ordutegiak [sanmarkos.eus](http://sanmarkos.eus) webgunean kontsulta daitezke.

### Eskularruak eta maskarilak errefusa dira

Bestetik, erabilera bakarreko eskularru eta maskarilak edo musukoak errefusa dira, be-

raz, edukiontzi grisera (eta inoiz ez lurrera) botatzeko eskatu dute Udaleko Ingurumen sailetik.

### Bestelako hondakinak

Gainerakoan, hondakinak dagokien egun eta moduan ateratzen jarraitu behar da. Bestelako hondakinak etxean eduki (etxeko olioak, arropak edo ezohiko hondakinak), egoera bere onera itzultzen den arte.

## Tren geltokia berritzeko prozesua abian

**E**uskal Trenbide Sareak (ETS) geltokia berritzeko kontratazio prozesua abiarazi du, Usurbilgo Udalak ohartarazi duenez. “Prozesua hasi besterik ez da egin”, ohartarazi du Usurbilgo Udalak. 2010ean tren geltokia berritzeko idatzitako proiektua berridazteko kontratazioa hasi berri du Euskal Trenbide Sareak (ETS). Proiektua berri-datzita, lanon esleipen prozesua abiarazi beharko dute eta gero lanei ekin. Luze joko du egitasmoa gauzatzuta ikusterrako. “Proiektu eguneratuak, gainera, Atallura joateko lotura segurua eta igogailua ere barne hartuko ditu”, berri eman du Usurbilgo Udalak.

Geltokia berritzeko eskaera ez da gaurkoa, aspalditik datorena baizik. “Udalak hainbatetan eskatu izan dio ETSri geltokia berritzeko, besteak beste, trenbide gaineko bi pasabide arriskutsuak kentze aldera (Atallura joateko pasabidea, eta Zumaiara joateko nasara joateko)”. Usurbilgo alkatearen esanetan, “zor historikoa du ETSk Usurbilekin. Urteak joan eta urteak etorri Usurbilera ez



“Proiektu eguneratuak Atallura joateko lotura segurua eta igogailua ere barne hartuko ditu”, berri eman du Udalak.

### ALKATEA

**“Espero dugu hau lehen urratsa izatea eta behin betikoz proiektua gauzatzea, besteetan ez bezala, ez dadin kaxoi batean sartuta gelditu”**

da deus iritsi, eta, aldiz, aldameneko herrietan inbertsio handiak egin dituzte”.

Gogoan izan, trenbideak hainbat puntu arriskutsu ditu Usurbilen; Troia inguruan, Atallun eta baita Txokoalden ere. Hauek ezabatzeko hainbat bilera egin ditu Udalak ETSko zuzendari-tzarekin. Albiste honekin, udal gobernu taldearen esanetan

“azken bileran adierazitakoa bete egin” dutela argi geratzen da. “Espero dugu hau lehenengo urratsa izatea, eta behin betikoz proiektua gauzatzea, besteetan ez bezala, ez dadin kaxoi batean sartuta gelditu”.

### Ohiko tren zerbitzuak

Euskotren ohiko tren zerbitzuak eskaintzen ari da aste hasieratik. “COVID-19ak sortutako egoeran zehar abian jarritako zenbait neurriei eskaintza egokitze prozesuan, Euskotrenek maiatzaren 11tik aurrera, astelehenetik ostiralerako lanegunetako ohiko maiztasuna berreskuratu du”. Informazio gehiagorako: 944 333 333 / euskotren.eus

## Gaikako bilketa %58,21ean Gipuzkoan, %86an Usurbilen

Atez ateko bilketa sistemaren eraginkortasuna agerian uzten duten datuak segidan. Ia 30 puntutan hobetzen du Usurbilgo gaikako bilketak Gipuzkoako batz bestekoa. 2019ko herrialde mailako datuak ezagutzera eman ditu Foru Aldundiak; Gipuzkoako hondakinen %58,21a bildu ziren gaika iaz herrialde mailan. %86a Usurbilen.

Foru Aldundia pozik agertu da halere datuokin, 2020rako Europak finkatua zuen %50eko gaikako bilketa gaitzen delako, eta 2025erako ezarritako

%55eko helburua lortzear delako herrialdea. Hondakin zati guztien bilketan izan den gorakada nabarmendu du Gipuzkoako Foru Aldundiak. Errefus bilketan izan den beharokada. Atez ateko bilketaren aurrean, bost edukiontzien sistemaren eraginkortasuna defendatu du Jose Ignacio Asensio foru ingurumen diputatuak. “Bio-hondakinaren bilketaren hobekuntzak bosgarren edukiontzien eraginkortasuna egiaztatzen du atez ateko sistemaren aurrean. Bos-

garren edukiontzia hedatzen den heinean, gaikako bilketaren datuek gora egiten dute”.

Era berean, “datu hauek agerian uzten dute beharrezkoa dela azpiegitura egokiak edukitzea hondakinak kudeatzeko, gure inguruko herrialde garatuenek egiten dutenaren antzera eta horretarako ditugu Gipuzkoako Ingurumen Gunean laster abiaraziko ditugun azpiegiturak”.

Bosgarren edukiontzien sistemarekin ordea gaikako bilketa ia %60koa da Gipuzkoan, %90era heltzear da Usurbil.

### Olatz Lasagabaster, berrogeialdian

Haurdunaldia dela-eta, maiatzaren 7an Olatz Lasagabaster erietxera atera zuten analisi bat egitera. Itzuli zutelarik eta aurretik berari ezer abisatu gabe, bere ziegan sartu eta 14 eguneko berrogeialdian jarri dute. Inor ez dagoenean, telefonoz deitzeko eta patioan tarte bat ibiltzeko ateratzen dute soilik. Hamar egun barru beste froga baterako hitzordu berri bat dauka erietxean. Hor-taz, seguru asko isolamendu egoera luzatuko diote.

“Pandemia garai honetan badaezpadako neurri hori logikoa dela pentsa daiteke baina, egiaz, logikoa ez dena da Olatz eta Patxi (eta beste dozenaka euskal preso) espetxean mantentzea oraindik. Aspalditik dute baldintzapeko askatasuna izateko eskubidea eta lege arrunta aplikatuz gero, beren etxean beharko lukete eta ez kartzela barruko baldintza kaskarretan kutsatzeko arrisku gorrian”, dio Usurbilen Nahi Ditugu elkarteak.

### Olatzen urtebetetzea, Sagardo Egunean

Maiatzaren 24an, Olatzek 41 urte beteko ditu. “Egoera hau dela medio, ez dakigu noiz berrartu ahal izango ditugun ohiko elgarretaritzeak. Horregatik, animatzen ditugu herritarrak gutun edo postal-txo baten bidez zorientzera”, ohartarazi du Usurbilen Nahi Ditugu elkarteak. “Seguru gure hitzak eta elkartasuna lagungarri izango zaizkiola, baita Patxiri ere”. Hona helbideak:

Olatz Lasagabaster Anza Centro Penitenciario MadridVI Módulo F2 Carretera N-400, km. 28 28.300 Aranjuez (Madrid)

Patxi Uranga Salbide Centro Penitenciario MadridVI Módulo 1 Carretera N-400, km. 28 28.300 Aranjuez (Madrid)

**ETXEBIZITZA****Salgai**

Etxebizitza salgai Kalezarren: 79m<sup>2</sup> berriua, 2 gela, komuna, sukaldea, jangela, egongela, harrera. Dena kanpoaldera. Ganbara handia partekatua. 35m<sup>2</sup> garajea aukeran. 686462705

Etxebizitza salgai Santuenean: 2 gela, sukalde handia, egongela, komuna, bi balkoi, egongela. Argitsua, dena kanpoaldera. Etxeko eta komunitateko obra guztiak eginak. Trasteleku pribatua portalean. 677471648

Etxebizitza egin daitekeen 61 metro karratuko lokala salgai Munalurran. Nahiz izanez gero, lizentzia, proiektua eta etxebizitza egiteko aurrekontua eskuragarri. 943 916 182 (Jon)

Etxea salgai, Zubiaurrenean. 70 m<sup>2</sup>. 3 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Balkoia trasteleku. Dena kanpora. Fatxada eta teilatua berrituta. 688 779 465.

3 logela eta ganbarako etxebizitza salgai edo alokairuan Aginagan. Berritu berria, eguzkitsua eta lasaia. Tel. 650450869

Etxea erosi nahi dut Usurbilen. Kaxkotik gertu dagoen auzo batean. Gehienez 100.000 euro ordaintzeko prest. Tel. 666 770 851

Etxebizitza eta garajea salgai. Biak batera edo aparte. 3 logela, sukalde-egongela, 2 bainugela. Etxebizitzak 78 m<sup>2</sup> eta garajeak 50m<sup>2</sup>. Tel. 676 453 176.

Pisu bat salgai Kale Nagusian. 3 logela, sukaldea, egongela eta 2 bainugela. Dena kanpoaldera. Ganbara prezio barruan. Prezioa:

**OHARREI DAGOKIEN ARAUTEGIA**

Orri honetan agertzen diren oharrak doakoak dira. Telefonoz edo emailaz helarazi daitezke: 943 360 321 / [erredakzioa@noaua.eus](mailto:erredakzioa@noaua.eus)

Oharrak bidaltzeko azken eguna: astelehena, eguerdiko 12:00ak. Atal bakoitzaren goikaldean ipiniko ditugu berrienak. Oharra egokia ez dela erabakiko balitz, NOAUA!k ohar hori argitaratu gabe utziko luke.

205.000 euro. Tel. 629 631 838 :

**Alokairuan**

Konfinamenduan gustura gabiltza gurasoekin baina etxe bila gabiltzan bikote gazte bat gara. Biok hezitzaileak, lan kontratuarakin eta arduratsuak. 695 747 944

Etxe bat alokatzen da Santuenean. Bi logela, egongela, sukaldea eta komuna. Bistak zoragarriak. 685 727 844.

Usurbilen, kaxkoan eta inguruan pisu bat alokatu nahiko nuke. Txakurra daukat. Hilaren 1ean ordaintzeko konpromisoa. 661115222.

Gela bat alokatzen da Usurbilgo erdigunean. Giza-seme euskaldun eta adinekoa 687348223

Etxe bat edo logela bat alokatu nahiko nuke Usurbil edo inguruan. Kontratua beharrezkoa. Gustura jasoko dut zure deia horretarako aukerarik baduzu. 633141060

Etxebizitza baten bila gabiltza. Baserri bat zainduko genuke aukeran. Familia bat gara, bi seme ditugu eta euskaldunak gara. 630 335 561.

Marradun garaje bat alokairuan Bizkarre auzoan. 696 014 585

Alokairuko pisu baten bila gabiltza. Bi neska gara, biak lanarekin, arduratsuak eta garbiak. 688893668

Alokairuko pisu baten bila nabil. Tel. 620 708 265 / 686 143 786.

**MOTORRA****Salmenta,****garajeak**

Santuenea auzoan trastero txiki baten bila nabil. 626 735 354

Nissan Terrano 2 markako kotxea salgai. 943429682 / 637293471

Kale Nagusian garaje bat salgai. Ez da garaje itxia. Prezioa negoziagarria. 667336405.

Atxegalden garaje bat erosi edo alokairuan hartuko nuke. 653014518

Garaje itxi bat alokatzen da Errekaxiki kalean. Tel. 616 235 366.

Alokairuan 50m<sup>2</sup>-ko lokal/garaje bat Atxegalden. Autoak sartzeko atearekin. Goiko kalea 2. 676453176

Baju bat alokatzen da Munalurra, 4ean. Tel. 652 765 583

Garajea salgai Txaramuntoko kalean. 23 m<sup>2</sup>, ate elektriko eta itxia. 615744628.

**LANPOSTUAK****Lan eskaintzak**

Game Masterra behar dugu Quantum Escape Room-en. Gaztea bazara, eta jokoak nahiz ihes gelak gustatzen bazaizkizu bidali CV [info@quantum.eus](mailto:info@quantum.eus) helbidera

Usurbilgo neska edo mutil bat behar dugu, ingeleseko klase partikularrak emateko. 608201745

Txiribogan asteburueterako lan-gileak behar dira. Interesatuok hona deitu: 629 951 931.

Sukaldari laguntzaile bat behar dugu Lukainategi erretegian. 680 483 164

Zerbitzaria behar da Lasarteko taberna baterako. Interesatuak deitu telefono honetara: 607110365.

Finantza eta asegurueterako kudeatzailea behar da Buruntzaldean. Baldintzak: Esperientzia gabe asegurueteran, prestakuntza enpresaren kontura eta kotxearekin. Betebeharrak: profesionaltasuna eta seriotasuna, lanbide-heziketa eta baldintza onekin. Tel. 699 760 873

Udarregi Ikastola partikularrak emateko prest dagoen jendearen zerrenda eguneratzen ari da. Partikularrak emateko prest egongo bazina, bidali mezu bat: [gorputzaldiak@udarregi.eus](mailto:gorputzaldiak@udarregi.eus)

**LANPOSTUAK****Lan eskaerak**

Esperientzia eta erreferentziak

ditut. Etxeko lanak, pertsona helduak zein umeak zainduko nituzke, orduka zein egun osoz. 602830982

Usurbilen lan bila nabil zaintza lanak edo etxeko lanak egiteko. Esperientzia handi eta erreferentzia onak. Orduka zein lanaldi osoan aritzeko disponibilitatea. 617857807

Garbiketa eta zaintza lanak egingo nituzke. Esperientziarekin. Orduka, edo lanaldi osoz aritzeko disponibilitatea. 603315126

Garbiketa lanak, edo zaintza lanak egingo nituzke. Disponibilitate osoa daukat eta esperientzia antzeko lanetan. 631818150

Pertsona helduak eta haurrak zaintzeko edo garbiketan aritzeko lan bila nabil. Denborra osoz edo orduka. 602424658

Eraikuntzan, jardineritzan edo bestelako ofizioetan lan egingo nuke. Bizargin moduan aritzeko ere bai. 602424658

Laguntza soziosanitarioa behar baduzu ez izan zalantzarik deitezke. Esperientzia zabala osasun eta zaintza alorrean. Kontxu 619827232

Orduka lan egingo nuke Usurbilen garbiketa lanetan zein zaintza lanetan. 689027247

Lanaldi osoz aritzeko lan bila nabil. Esperientzia asko 661091863

Adinekoak zaintzen zein garbiketa lanak egiten esperientziaduna. Disponibilitate osoa. Egoitza baimena ere badut. 645067560 Betza

Adinekoak zainduko nituzke. Es-

**Urteaskuan Mikel!**

Maiatzaren 18an, 12 urte! Muxu handi-handi bat familia osoaren partetik eta ondo pasaaaa!

**Zorionak Ilargi!**

19! Ilargi txapeldun! Zorionak maitia! Etxekoan partez.



**Zorionak Jon!** Hemen dugu San Ixidro eguna! Hemen dugu zure eguna! Hamargarrena! Muxu handi bat TXAPELDUN!! Etxeko eta familia guztien partez.



perientziaduna. 666097595.

Lan bila nabil. Adinekoak zaintzeko prest. 617016290.

Lan bila nabil asteburuatarako, adinekoak zaintzeko. 688712294

Lan bila nabilen gazte bat naiz. Garbiketan edo pertsona helduak zaintzen, arratsaldetan edo gauean. Tel. 633 159 088.

Lan bila nabil, pertsona helduak zaintzeko, arratsaldetan edo gauean. 655 986 552

Lan bila nabil. Garbiketan edo pertsona helduak zaintzen. Segituan lanean hasteko moduan. 631 703 566

Lan bila nabil. Garbiketan edo pertsona helduak zaintzen. Segituan lanean hasteko moduan. 632 618 839

Lan bila dabilen mutil bat naiz. Pertsona helduak zaintzen edo garbiketan. Tel. 617 016 290

Lan bila nabil. Pertsona helduak edo umeak zaintzen, garbiketan, ostalaritzan edo plantxa egiten. 676 188 411

Lan bila nabil. 655 986 552

Mutil langilea naiz. Pisu baten bila nabil alokairuan altzaririk gabe. Soldatarekin. 666 108 164

Haur edo adinekoak zaintzeko emakume esperientzia handia duena eskeintzen da. Baita ere etxeko garbitasunerako. 602568090 / 658706345

Lan bila nabil. Helduak edo umeak zaintzen, edo garbiketan. Berehala lanean hasiko nintzateke. 603 818 142

Lan bila nabil. Helduak edo umeak zaintzen, edo garbiketan. Berehala lanean hasiko nintzateke. 648 271 757

Lan bila nabil. Helduak edo umeak zaintzen, edo garbiketan. Berehala lanean hasiko nintzateke. 617 016 397

Neska arduratsua lan bila nabil, umeak edo helduak zaintzeko edo garbiketan. 632 285 101

Lan bila nabil. Pertsona helduak edo umeak zaintzen. 632 264 187

Lan bila nabil. Pertsona helduak edo umeak zaintzen. 688 712 294

Ikastolatik atera ondoren umeak zaintzeko prest dagoen neska usurbildarra naiz; gaztea eta euskalduna. Edozer dela ere, deitu edo bidali whatsapp mezu bat 688637679, Maddi.

Lan bila nabil. Margolari bezala

lan egin dut, garbiketa lanetarako titulua dut, "catering"ean ere aritu izan naiz. 686 51 35 36.

Pertsona helduak edo umeak zaintzen lan egingo nuke. 631 864 292.

Pertsona helduak edo umeak zaintzen, edo garbiketan lan egingo nuke. Tel. 617 748 714.

Lan bila dabilen neska ardu-

ratsua naiz, esperientziarekin. Umeak arratsalde zaintzeko prest. Maria 672340330

Pertsona heldu edo dependienteak zaindu edota etxeko garbiketa lanak egiteko prest. Soziosanitario titulua dut eta esperientziaduna. 686 825 587.

#### BESTELAKOAK

Isabelita Mandarina Japoniarak (txoriak) ditut salgai. 659185107

Ingelesarekin laguntzeko, Usurbilgo pertsona baten bila nabil, DBH 1ean ikasten ari den nire alabarentzat. 627 18 46 74

AMC markako eltze bat daukat salgai. Oso ondo dago 943363201

Matxaka; sagarra txikitzeko tresna daukagu salgai. Itziar 637974994.

Baserriko kalabazak salgai. 605 783 227.

Estilo guztietako txirikordak (trenza) egiten dira. 658706345, 60256809.

Andatzpe Elkartean bazkide berriak sartzeko plaza libreak daude. Edozein zalantza argitzeko 669 205 896 (Aitor).

Andatzpe elkarteko bazkidea naiz, plaza saldu nahiko nuke. 699 421 238 Iñigo.

#### TRUKEAN, OPARI

Inprimatzaileak, telebistak, patinetak, liburuak... Atalluko Garbigunean, doan hartu daitezke. Astelehenetik ostiralera: 10:15-13:00 / 16:00-19:00. Jai egunak ez diren larunbatetan: 9:00-13:00.

## Telefono interesgarriak

Udala.....	943 371 951	Abere-Landare Babeslea.....	943 376 650
Atez ateko bulegoa.....	900 776 776	Taxia (Angel).....	607 928 770
Udaltzaingoa.....	943 361 112	Taxia (Joxe Kruz, 8 plaza).....	677 373 466
Udal zerbitzuak (Brigada).....	943 370 148	Eusko Tren.....	943 470 976
Sexu Aholkularitza Gunea.....	697 919 516	LurraldeBus.....	943 000 117
Gizarte Zerbitzuak.....	943 377 110	Korreos - posta zerbitzua.....	943 362 894
Diputazioa - Basetxea.....	943 361 215	Anbulategia.....	943 362 013
Bake Epaitegia.....	943 372 336	Amenabar botika (Iehen Oa).....	943 376 076
Udarregi Ikastola.....	943 361 216	Iturralde botika.....	943 363 395
Haur Eskola.....	943 374 061	DYA.....	943 464 622
Zubietako Lanbide Eskola.....	943 364 600	Gurutze Gorria.....	943 272 222
Zubietako Herri Batzarra.....	943 372 077	Emergentziak.....	112
Hastapen tailerrak.....	943 360 465	Genero-indarkeria, arreta.....	900 840 111 / 016
KZgunea.....	943 023 684	Gonzalez Ehorztetxea.....	943 362 163
Oiardo Kiroldegia.....	943 372 498	Kutxabank.....	943 361 202
Sutegi Udal Liburutegia.....	943 360 692	Euskadiko Kutxa-Laborala.....	943 364 740
Zumarte Musika Eskola.....	943 371 594	Banco SabadellGuipuzcoano.....	943 370 006
Etumeta AEK euskaltegia.....	607 609 379	Banco Popular Español.....	943 370 411
Kalezar Eguneko Zentroa.....	943 365 249	BBVA.....	943 377 155
Gure Pakea Zahar Egoitza.....	943 368 770	Caja Rural Kutxa.....	943 368 842
Gure Elkarte Zahar Egoitza.....	943 371 751	Argindarra - Iberdrola.....	901 202 020
Arrate Zahar Egoitza.....	692 898 492	Gas naturala - Naturgas.....	902 123 456
Usurbilgo Salbatore Parrokia.....	943 361 239	Telefonica.....	1004
Noaua! Kultur Elkarte.....	943 360 321	Euskaltel.....	900 840 840

## Goardiako farmaziak

**Osteguna 14** URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

**Ostirala 15** GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

**Larunbata 16** DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

**Igandea 17** DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

**Astelehena 18** ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte

**Asteartea 19** DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

**Asteazkena 20** LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte

## Maiatzak 14 - Maiatzak 24

**Osteguna 21** GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte

**Ostirala 22** ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

**Larunbata 23** LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte

**Igandea 24** LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte

LARUNBATETAN,  
Usurbilgo bi farmaziak ireki-  
ta egongo dira: 9:00-13:30

**GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ**  
URRUTIA-MARTIN  
Etxeberri auzoa, 1. Florida  
943 55 77 38

Gainontzeko datak [www.cofgipuzkoa.com](http://www.cofgipuzkoa.com) web orrian ikusgai.

# Agenda maiatza

## 15 ostirala

■ Udajolasen izena emateko azken eguna.  
Xehetasunak orrialde honetako albistean.

## 16 larunbata

## 17 igandea

■ Erraustegiaren aurkako sirena-hotsa  
12:00etan.

## Maiatzaren 24a, botilako sagardoa dastatzeko eguna

**C**OVID-19 birusaren ondorioz, aurten ez da Sagardo Eguna ospatuko. Hala ere, sagardoari eta sagardo ekoizleei gorazarre egiteko proposamen bat egin nahi dizuegu: maiatzaren 24an txotx egizu sagardo botila batekin eta sare sozialetan partekatu!

Sagardo Eguneako antolatzaileak azken ordura arte egon ziren zain, baina etsi egin behar zuten. Ez zuten beste erremediorik izan. “Datorren urtean itzuliko gara eta kolosala izango da!”, halaxe zioten apirilaren 15ean plazaratu zuten idatzian. Eta hala izango da gainera.

Egun hauetan, konfinamendua arintzeko prozesua jarri da martxan. Egoera egun batetik bestera alda daiteke ordea. Bien bitartean, argi dago Sagardo Eguna eta antzeko festa jendetsuak antolatu ahal izateko asko falta dela oraindik.

Gauzak horrela, maiatzaren 24an ez dugu frontoian edota Askatasuna plazan elkartzeko aukerarik izango. Etxean eta etxeokoen sagardoaz gozatzeko aukera ordea ez digute kendu. Arrazoi honenatik okurrutu zaigu ondoko egitasmoa: “Maiatzaren 24an txotx egizu sagardo botila batekin eta sare sozialetan partekatu! #sagardoeguna #UsurbilgoSagardoEguna”.



**Maiatzaren 24rako erronka: sagardo botila ireki, txotx egin eta sare sozialetan partekatu argazkia. Irudia: Iñaki Agirresarobe.**

### Sagardoa eskuratzeko aukera ugari

Izango da etxean edo baserrian ekoizten duenik. Gainontzekoek herriko dendetan edota Alkartasuna kooperatiban eskura ditzakezue sagardo botilak (ostiral honetan itxita egongo da Alkartasuna, San Isidro eguna delako). Kooperatiban gainera, aukera zabala dago: Aginaga, Aialde Berri, Arratzain, Astiazaran, Saizar eta Urdairako sagardo botilak dituzte salgai.

Bada beste aukera bat ere: zuzenean sagardotegiei erostea (ikus astekari honetako kontrazala).

6.000 biztanle ditu Usurbilek. Maiatzaren 24rako dozena bat botila erosiko balira biztanleko, bultzadatxo polita emango litzaieke sagardotegiei eta herriko saltokiei. Ez utzi azken ordurako eta eskura ezazu herriko sagardoa.

### Datozenak

#### KZguneko ikastaroak Youtuben ikus daitezke

KZgunekoak zuzeneko ikastaro batzuk eskaintzen ari dira Youtuben, KZguneaTIC kanalaren bitartez. “Gure zuzeneko hitzaldietara joateko, interesa duten pertsonak Internet-erako konexioa baino ez dute behar, YouTubeko ekitaldirako sarrera librea izango baita (ez da beharrezkoa alde aurretik izena ematea)”.

#### Maiatzak 14 osteguna

- 11:00-13:00 (gaztelaniaz).
- Zure ordenagailua birus eta bestelako mehatxuetatik babestu.

#### Maiatzak 19 asteartea

- 11:00-13:00 (euskaraz).
- Ezagutu 3D inprimatzeak dituen aukerak.

#### Laboaren Uztaila, bertan behera

“Uztailan ez dakigu ze arau eta muga izango ditugun ekitaldiak aurrera eraman ahal izateko”. Horregatik, aurtengo ‘Laboaren Uztaila’ zikloa bertan behera uztea erabaki dute. “Nahiz eta ekitaldi ia guztiak lotuak genituen, hurrengo urtean izan beharko du” adierazi dute antolatzaileek.

Okindegia-Gozotegia  
**LABE-GOXO**

**URDAINTZI S.L.**  
Eraikuntzak  
649 43 54 75  
943 36 72 64  
IT-ak egiten dira  
**ERAIKUNTZAK-OBRAK-ERREFORMAK**

Josue  
Igeltseritza  
606 37 21 05  
Atallu pol.28 USURBIL

**Uraitz, s.l.**  
Igeltseritza  
Orokorra  
693 059 392  
uraitz@uraitz.com USURBIL

Usurbilgo ile-apaindegiak  
berriz ere zabalik! (hitzorduekin)



943 36 36 41



943 37 28 44



943 57 16 80



943 36 19 51



943 36 28 87



# USURBILGO SAGARDOTEGIEN

## ESKAITZA



ASTIAZARAN  
SAGARDO NATURALA

**GURE SAGARDOA ESKATU!**

Sagardotegian jasotzeko aukera

Banaketak etxeetara egunero

Idatzi whatsapp bidez edo deitu zenbakira

**661.568.441**



**AIALDE  
BERRI**

SAGARDOTEGIA

**GURE SAGARDOA ESKATU**

Aialde Berrin jasotzeko

**943 36 50 31**



URDAIRA

Sagardotegia

**GURE SAGARDOA ESKATU**

Jasotzeko edo etxerako zerbitzua

**943 37 26 91**



**SAIZAR**  
Sagardotegia

**GURE SAGARDOA ESKATU**

Jasotzeko edo etxerako zerbitzua

**BANAKETAK:** Maiatzak 21, eta Maiatzak 22 (osteguna eta ostirala)

**Email:** pedidos@sidrassaizar.com

**Telefonoz:** 943 36 45 97



aginaga

Sagardotegia eta Hotela \*\*

**GURE SAGARDOA ESKATU**

Jasotzeko edo etxerako zerbitzua

**BANAKETAK:** Maiatzak 21, eta Maiatzak 22 (osteguna eta ostirala)

**943 36 67 10**

Sagardo Egunean...Txotx! etxetik Usurbilgo sagardoarekin